

ARGIA

**“Neurriak
kuestionatu ordez,
kontziente izan
aurrez aurreko
hezkuntza
mantentzea
dela funtza”**

JOKIN BILDARRATZ

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua

29-33. orriak

#2.764 | 2022/01/30 | 3,90 €



**Nazionalismo
espainiarraren
gerra kulturalak**

24 | POLITIKA



**20 urte basoetako
iratxoek Gasteiz
okupatu zutela**

34 | GIZARTEA



LARRUN #270
**Anorexia, bestelako
gerturapen bat**

TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat
Santi Cobos presoaren ahotik

Zigor Olabarria Oleaga

Santi Cobosek (Leon, Gaztela, 1968) bizitzaren erdia eman du preso. Pairatu ditu torturak, jipoiak, muturreko isolamendua, FIES sailkapena; burutu ditu hamaika protesta eta ihesaldi saiakera, bahitu ditu funtzionarioak eta poliziak. Bidean, Euskal Herriarekin adiskidetu da. Gordinkeria, umorea, gorrotoa, samurtasuna, hausnarketa nahasten dira Santiren lekukotasunean; bere bizipenez harago, espetxe-sistema ezagutzeko kontakizuna da berea.

212 orrialde

16€

+ 4€

bidalketa gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

azoka.argia.eus

943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik **08:00**etatik **15:00**etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 19 | ENDIKA ALABORT
- 20 | JUNE FERNÁNDEZ
- 21 | NEREA IBARZABAL
- 21 | LAURA MINGE
- 22 | MIKEL BASABE

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 43 | ARGIA KOMUNITATEA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: NEREA ARRIOLA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



39 | MINONDOTARREN GUTUNAK

Maria Ortegak egin duen erreportajeaz azaldu du Goizuetako etxe batean, arropa eta kontabilitate paper artean, aurkitu dituzten euskarazko 300 gutunen balioa: XVIII. mende amaiera eta XIX. hasierakoak dira, olagizonek elkarri bidalitakoak eta beraz, gaia ekonomia dutenak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Giroa gaiztotuz doa Afrikako Mayotten, beste behin, etorkinak jomugan jarritz

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | XABIER DIAZ-ESARTE

“Pirinioetan komunitate-autodefentsarako mugimendu indartsua dago”

Reyes Ilintxeta

24 | POLITIKA

Nazionalismo espainiarraren armak gerra kulturala irabazteko

Gorka Bereziartua

29 | HEZKUNTZA | JOKIN BILDARRATZ

“Segregazioa ez da eskolan sortzen”

Mikel Garcia

34 | HISTORIA

Iratxoek Gasteiz okupatu zutenekoa gaztetxearen defentsan

Zigor Olabarria

46 | KULTURA | DAVID WOJNAROWICZ

Rimbaud-ren moztropean hazitako artista disidentea

Julen Azpitarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Oinarri ikusezina

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 29.000 lagun pasa aritzen dira guk sortutako zikinkeria garbitzen. Bakoitzaren etxean bezala, lantokian edo kalean ere ezinbesteko lana da. %86 inguru eraikin eta lokalak garbitzen aritzen da, gainerakoak kale garbitzaileak dira. Lau pareten artean lan egiten dutenak emakumeak dira nagusiki (%85), espazio publikoan aldiz gizonak (%76). Batzuen eta besteen aldea soldatetan ia %40koa da. Garbiketa, emakumea, prekarietatea eta ikusezintasuna. Etxean bezala lan munduan ere eskutik doan multzo ankerra. Patronalak eguneko 0,16 euroko igoera proposatu du Bizkaiko garbiketa-hitzarmen kolektiboaren negoziaketan. ESK sindikatuko kideen erantzuna Bilbon: kulerotan uzten gaituzue!

 SERGIO SUHIGARAI  AXIER LOPEZ

3%



0,16€/día

esk

Repsolen petrolio isuri batek 18.000 kilometro karratuko hondamendi ekologikoa eragin du Perun

LEIRE ARTOLA ARIN

Kanpo Harremanetako Ministerioak ohartarazi du azken garaietan Liman izandako hondamenik “okerrena” dela. Besteak beste, babes-tutako bi naturagune eta 21 hondartza kaltetu ditu; erantzuleak zigortzeko eskatu dute hainbat eragile eta instituziok. Urtarrilaren 15ean hasi zen petrolio gordinaren jarioa, Tongan sumendi bat lehertu ostean.

Anibal Torres Peruko Justizia eta Giza Eskubideen ministroak ekozidiotzat jo du La Pampillako petrolio findegian izandako isuria, plazaraturiko txio batean. Repsolen fabrikak Ozeano Pazifikoko 18.000 kilometro karratu kutsatu ditu, petrolio gordinaren jario baten eraginez. Urtarrilaren 15ean hasi zen isuria, Tongako sumendiaren leherketak sortutako tsunamiaren ondorioz. Olatuak La Pampillako findegiraino heldu ziren, petrolioaren husten ari zirela. Enpre-

sak gobernuari bota dio errua, tsunami abisurik ez emateagatik.

Repsolek hasiera batean jakinarazi zuen “zazpi bat galoiko isuria” izan zela -30 bat litro-. Ordea, irudiek beltzez estalitako itsaso, animalia eta hondartzak erakusten dituzte, eta lehen datuek diote dimentsio askoz handiagoa hartu duela hondamendiak.

“Azken aldian Liman izandako hondamendi ekologikorik okerrrena” dela ohartarazi du Kanpo Harremanetako Ministerioak: gutxienez babestutako bi natur-eremuri eragin die, bertako fauna eta flora kaltetuz. Ehunka arrantzalari “kalte larriak” eragin dizkiela ziurtatu du ministerioak. Gainera, Digesa ingurumen-osasuneko zuzendaritza orokorrak 21 hondartza “ez osasungarri” gisa izendatu ditu, petrolioaren dela-eta. Repsoli eskatu diote garbiketan lan handiagoa egiteko “berehala”.

IKERKETA IREKI DUTE

Fiskaltzak ekozidioa argitzeko ikerketa abiatu du urtarrilaren 17an, La Pampillako petrolio findegiauren aurkakoa. Hondamendiaren erantzuleak aurkitzeko eskatu dute hainbat eragilek eta instituzio nagusik. Justizia eta Giza Eskubideen ministro Anibal Torresek gogorarazi du ekologia-hondamena eragitea zigortu egiten dela: “Ezin du zigortu gabe geratu Repsolen jabetzako den La Pampilla findegiak sortutako ekozidioak. Erantzukizun administratiboa (isunak), zibila (kalte-ordainak) eta penala dauka”.

Garbiketa lanetan ari dira, eta polietileno-zko mahuka batzuen bidez xurgatzen dute isuritako petrolioaren. Hala ere, ez dute erraza izango ingurumena erabat lehengoratzea, besteak beste, bertako fauna eta flora gogorki kaltetua dutelako. ●



Emakumearen ahotsa



ARITZ GALARRAGA

Safo da, omen, Mendebaldeko lehen emakume poeta. Maite Lopez euskaratzaileak diosku: harengana jo zuten –babesleku gisa, autoritate gisa eta sortzeko pizgarri gisa– haren ondoren poesia idatzi zuten emakume ia guztiek. Gizonak ere liluratzen ditu, Ezra Pound: “muina ezagutu nahi baduzu, Safo, Catulo, Villon”. Orain bi mila eta zazpi ehun urte inguru idatzitakoek jarraitzen dute hunkitzen gaur egunekoak.

Obra osoaren hogeirena besterik ez diogu ezagutzen, ia berrehun puska irakurgarri. Bizitza ere halatsu, pentsa, Bernat Etxeparerekin gertatzen bada: “Saforen obra bilakatu da egilearen bizitzaren ezagutzari buruzko iturririk zuzenena”. Baina, obra eta bizitza, bizitza eta obra, biak ala biak dira jakingarri, irakurriak izan diren garaia gorabehera, eta garaia arabera: tradizioak Safo kritikatzan du emakumeekin maitemintzeko joeragatik, “eta garaiera txikiak ematen zion itxura ez oso politagatik, baita garai hartako gusturako azala ilunegia izateagatik ere”. Eta, gehituko genuke, emakume izateagatik, ausartu izanagatik gizonezkoena zen eremu batean aritzera. Emakumezko bat baita poemon subjektu nagusia, bere sexualitateaz hitz egiteko eskubidea aldarrikatzen duen emakumezkoa. Mary Beardek esango luke: jokoan dagoena ez da hainbeste mintzagaia, adibidez lesbianismoa, baizik eta ahotsa dela emakumearena.

“Saforen homosexualitateari buruz”, Maite Lopez berriz, “ikaragarri idatzi da, unean uneko pentsamoldea islatuz”; eta sinatzeko moduko beste hau: “gogoan izan behar da haren hitzak ezin ditugula inola ere gure begiekin neurtu”. Hots, poemak irakurri behar direla diotenaren arabera, irakurri gabe gure interesen neurrira; kontuan izanik, hori bai, irakurleok garaia seme-alabak garelara. Edo alde positiboa nabarmenduta: garai bakoitzak Saforen poesia, zein beste edonorena, ulertzeko eta gozatzeko bide berriak sortzen dituela. ●



Ustelkeria

Alonsotegiko EAJko alkate ohiak, udaleko arkitekto ohi batek eta Laneder Construccioneseko bi enpresarik onartu dute prebarkazioa, iruzurra eta dokumentuen faltsutzea egin izana. Fiskaltzarekin eta akusazioarekin hitzarmena egin dute: bi urteko kartzela zigorra, hamarreko inhabilitazioa eta lapurtutako dirua interesekin itzultzea.

Etxebizitza

Etxebizitza alokairuaren prezioa kontrolatzea ahalbidetuko duen lege-proiektua adostu dute Nafarroako Gobernuaren osatzen duten hiru alderdiek. Bi adierazle hartu nahi dituzte kontuan: gutxienez 3.600 euroko urteko errenta eta gehienez lanbide arteko soldata bider 1,5. Legebiltzarrean bide luzea du oraindik proiektuak.

Sortu

Hirugarren kongresua amaitu du Sortuk. Arkaitz Rodriguez buru duen zuzendaritza berriak %89ko babesia jaso du eta Euskal Estatuaren aldeko apustua berritu dute. Kongresuan zehar Herrigaia ponentzia onartu dute gehiengoz eta bertan jaso dutenez, “independentziarako indarrak metatu eta biderkatzeko” lanean jarraituko dute.

EKONOMIA

Nork defendatzen du publikoa?



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Behin baino gehiagotan salatu genuen 2008ko krisiaren testuinguruan, neurri ekonomikoez mozorrotutako erreforma politiko bat inposatu zigitela. Espainiako Konstituzioaren aldaketa, aurrekontuen kontrola, politika publikoak egiteko mugak... Egia da publikoak aspaldi utzi ziola eredu ekonomiko eta sozialaren ardatza izateari. Bistakoa zen publikoaren pisua gutxitzen ari zela. Baina beste urrats bat egin eta publikoa pribatuaren menpeko egin zuten lege eta erreformen bidez. Ez da edonolako botere ekonomikoek lortutakoa: publikoa ezin da oztopo edo muga izan pribatuaren garapenean. Eta arauak oinarrizko eskubideak bermatzen dituzten zerbitzu publikoentzat ere balio du; edo agian horretarako da bereziki.

Ulertezina da halako osasun krisialdi baten aurrean osasun zerbitzu publikoak indartzeko neurririk ez hartzea, aurrekontu berezirik ez adostea, alarma egoeraren erdian murrizketen soka luzea ez etetea. Harrigarria da ikustea, zaharren egoitzetan gertatzen ari denarekin denok asaldatu gauden bitartean, gobernuek aterkia ireki eta ekaitza pasatzea itxaron besterik ez dutela egin. Publikoa bigarren mailako egiten duten joko arauetatik begiratzuz soilik uler liteke hau guztia.

Lehen arretaren gainbeheraren ondoren, aseguru pribatua zutenen kopurua %4 handitu zen 2020an, auskalo zenbat 2021ean. 2006ko Espainiako Menpekotasun Legeak dioenaren eta benetan zaintza sektorearekin gertatu denaren arteko aldea 5.000 miloi eurokoa dela kalkulatzen da; hori da negozioa. Eta ulergarria ere bada oraingoan dirua iristea Europatik: ziur ez dela babes soziala indartzeko izango, ez dela zerbitzu publikoetara bideratuko, gobernuetan dagoena dagoela ere.

Baina joko zelaia hori izanik ere, ez da egia gobernuek pribatua zenbat dirurekin eta noraino lagundu erabakitzea baino ezin dutela egin. Publikoa defendatu eta babesteko sakoneko hautua egin daiteke, eta hori egitea beste aukerarik ez dugu gainera. ●

ANALISIA



Langileen eskubideak, sintoma arinekin

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Proba bat egin ostean, COVID-19an positibo eman dut. Ondo nago, sintoma arinekin. Hurrengo egunetarako aurreikusitako agenda publikoa atzeratu eta konfinamendutik lanean segituko dut". Kendu agenda publikoaren zera hori erditik, eta edonorenak izan zitezkeen adierazpenok, ziurrenik azkenaldian hainbatetan entzungo edo adieraziko baikenuen gauza bera. Baina kontua da oraingoan ez dituela edozeinek esan hitzok, baizik eta Yolanda Díaz Espainiako Lan ministroak.

Ezkertiartzat aurkezten zaigun Lan ministro baten partetik gisako mezuak zabalteak ez dirudi, ez, egokiena, arrazoi simple eta argi batengatik: *a priori* langileen eskubideen defendatzaile eta eredu izan beharko litzateke. Eta kontrako norabidean, adierazpenon atzean askok antzeman du langileriarentzat mezu bat: gaixorik egonik ere, egon zaitezke lanerako moduan. Esandakoaren desegokitasunagatik bakarrik ez, jada agerikoa dena nabarmentzera datozelako ere badira esanguratsua ministroaren hitzok; COVID-19aren aitzakian, gaixorik lan egitea normalizatzen ari garela, alegia. Ez ziren alferrik seinalatu telelanaren balizko arriskuak pandemiaren hastapenetan.

Eta egongo da esango duenik Díaz ez dagoela gaixorik, koronabirusaren sintoma arinak hotzeriaren gisako zerbait izatera datozela, eta horrela egoteak ez duela bat lanerako ezgaitzen. Puntu horretaraino bat nator irakurketarekin, baina ñabardura garrantzitsu bat uzten du kanpoan: hotzeriagatik inork ez dauka konfinatu eta bizitza normala egiteari utzi beharrik, koronabirusarekin ez bezala. Logikoa iruditu dakiguke, COVID-19aren nolokotasunak tarteko hartu beharreko salbuespen neurria, eta hargatik lanarekin uztargarria. Baina produzitzea ez ezik beste ia guztirako ezgaitzen gaituzten agertokiei atea irekitzeak, printzipioz, alerta eman beharko liguke. Kutsatutakoentzako eta kontaktu zuzenentzako baja eskubideak izango du izateko arrazoirik, ezta?

Díazen hitzei tiraka, bada kezkatzen nauen beste aspektu bat ere: sintomak izanik, kriterio pertsonalen arabera erabakitzeak lanerako gai edo ezgai gauden, ze berme ematen dio langileari? Kutsatuta lan egitea normalizatzen ari den testuinguruan, gehiengoarentzat lan esparruan nagusi diren ezegonkortasuna eta prekariedade faktore erabakigarri izango dira bat lanerako dagoen ala ez erabakitzerako orduan. Inozoa litzateke kontrakoa pentsatzea. Erabat jota egon ezearn nola ba hartu baja, pattal egonik ere lanean jarraitzen duten lankideak geroz eta gehiago badira? Nola jarri, bada, osasuna lanaren aurretik, ezaxolakeria keinu gisa uler badaiteke –eta ondorioz, ogibidea arriskatzea ekar badezake–?

COVIDaren agerpenaz geroztik herritarrok kutsatzaile potentzialak garen era berean, soldatapeko lana –eta hortaz, logika kapitalista– existitzen denetik langileok alper potentzialak gara. Bien arteko nahasketa, telelanarekin tarteko, koktel arriskutsua. ●

“Guk eta gure semeak, Iñigok, ez ote dugu merezi aitortzarik?”

MANU CABACAS, FINA LICERANZU

Abenduaren 15ean Ertzaintzak artxibatu egin zuen Iñigo Cabacasen hilketari buruzko barne ikerketa, eta gurasoek gutun batean adierazi dute “harridura eta atsekabea” eragin ziela erabakiak. Josu Erkoreka Jaurlearitzako Segurtasun sailburuari leporatu diote euren samina areagotu izana egindako adierazpenen eta hartutako erabakien bidez.

2022-01-19



40

segundoro pertsona

batek bere buruaz beste egiten du, eta suizidio bakoitzeko beste 20 saiakera daude, OMEren arabera. Suizidioa bigarren heriotza kausa da 10 eta 24 urteko adin-tartean.



“Kontzientzia aldaketa gertatzen ari da Zuberoan, euskaraz mintzatzea gero eta onartuagoa da”


MAITE ETCHEVERRIA

Zuberoako Lurralde Poloan euskararen ardura du Etcheverriak. Kariketan denok euskaraz mintzaten garenean izango da egiazko urte baikorra, dio.

XIBEROKO BOTZA (2022-01-06)



1850-59
1860-69
1870-79
1880-89
1890-99
1900-09
1910-19
1920-29
1930-39
1940-49
1950-59
1960-69
1970-79
1980-89
1990-99
2000-09
2010-19
2020-29



TENPERATURA
ALDAKETA
URTEZ URTE
1850-2021

IRUDIA: ED HAWKINS

TEKNOLOGIA

Erabiltzen ditugun tresnek moldatzen gaituzte



DIANA FRANCO

S ortzeko aukera bizitzako eremu askorekin lotuta dago. Sortzeko baliabide askorik ez da behar. Makila batzuekin lurrean marraztu dezakezu, zarata egin basoan, etxola bat eraiki... baina sortu dugun munduak onurak eta mugak ditu. Sortzeko ditugun moduek moldatu dituzte muga horiek. Egun dugun munduan, pertsona gehienok gure bizitzan zati handi bat herri eta hirietako pisu txikietan ematen dugu. Etxe txiki hauetan ezer fisikoa sortzeko txoko bat izatea ez da erraza. Zentzu horretan, oso ulergarria da ordenagailuak zer suposatu duen sorkuntza baliabide bezala pertsona askorentzat. Gainera, ordenagailuekin egindako sorkuntzek gure gorputza eta espazioari loturiko mugak gaintzen dituzte internet bidez lanak zabaltzeko eta elkarrekin sortzeko ematen dituen aukerei begira. Behar bada, gertu dugunaren gainean eragiteko aukera gutxi dagoen ideia zabaldu da gure baitan, eta sortzeko dimentsio digitala garatu dugu horren ordez. Jasangarritasuna ez dugu ahaztu behar, eta honetan ere eremu digitalak gauzak egiteko moduak aldatzeko aukerak dakartza berarekin. Oholtza digitala bakarra ez bada ere, merkatu handi baten promesara hurbiltzen dituzten oholzetara gerturatzen dira sortzaile gehienak. Oholtza masibo hauetan arau berriak daude ordea, eta etekinak lortzeko algoritmoentzat lan egin behar da. Egoera honetan, ez da erraza ulertzea nor den nagusia, ezta norentzat egiten den lan ere. Plataform gisa ezagutzen ditugun oholta hauetan arrakasta izateko ezagutzak joaten dira josten sortzaileak: zenbat segundo dituzun arreta lortzeko, zenbat denbora iraun behar duen lan batek, zein filtro diren onenak... Azken batean, erabiltzen ditugun tresnek moldatzen gaituzte. ●

NAZIOARTEA



Lourdes Maldonado
Mexiko presidentearen
aurrean hizketan.

Kazetaritza, espioitza eta heriotza

AXIER LOPEZ

El *Faro* 1998an San Salvadorren jaiotako hedabide bat da, Erdialdeko Amerikako lehen egunkari natiboa Interneten. Bere eslogana haxe da: "Boteretsuek gezurra esaten dutenean, kazetaritza ez da isilik geratzen". Hilaren hasieran jakitera eman dute *El Faroko* 22 kideren komunikazio pribatuak zelatatu zituztela 2020tik 2021era bitartean. Kazetarien, editoreen eta administrazioari langileen telefonoak 226 kanpoko esku-hartze izan zituzten, Torontoko Unibertsitateko Citizen Lab laborategiaren txostenaren arabera. Erasoak egin zituzten espioitzarako software ezagun baten bidez: Pegasus, NSO Group enpresa israeldarrak garatutakoa. Pegasusek telefonoan dagoen informazio oro xurgatzeko aukera ematen du: elkarrizketak, fitxategiak, argazkiak, audioak, kontaktuak... NSO Groupek adierazi du Pegasus programa gobernuei baino ez diela saltzen, eta betiere Israelgo Defentsa Ministerioaren baimenarekin. Hori dela eta, *El Farok* zelatatzeko Nayib Bukeleri leporatu dio, ustelkeria kasuz eta jarduera autoritarioz josita dagoen El Salvadorreko gobernuaren buruari.

Jazarpenak iraun duen 17 hilabete horietan *El Farok* hainbat ikerketan plazaratu zuen. Besteak beste, gobernuaren eta *pandillen* arteko negoziazioa, El Salvadorren Bitcoin-a ezartzeko asmoz Bukele presidentearen anaiek egindako ezkutuko negoziatioak edota gobernuko fun-

tzionarioen ondasunak agerian utzi zituztenekoa.

MEXIKON HIRUGARREN KAZETARIA HIL DUTE

"Laguntza eta justizia eskatzera nator, nire bizitzaren beldur ere banaiz eta", esan zion Lourdes Maldonado kazetariak duela hiru urte Andrés Manuel López Obradorri aurrez aurre, Mexikoko presidenteari egunero egiten duen agerraldietako batean. Telebistan eskaintako saio horretan, Obradorrek babesa eskaini eta kasua ikertuko zutela esan zuen. Astelehenean tiroz josi zuten bere autoan zihoala.

Lourdes Maldonado Kalifornia Behereko estatuaren babespean zegoen, lan gatazka baten harira Jaime Bonilla estatuko gobernadore ohiari auzitegiaren aurre egin ondoren. Joan den ostegunetan bertan, Maldonadok jakinarazi zuen prozesu judiziala irabazi zuela Bonillaren jabetzakoa den Primer Sistema de Noticias (PSN) enpresaren aurka. Astelehenean hil egin dute, urtarril honetan Mexikon hil duten hirugarren kazetaria, Margarito Martínez fotokazetariarekin eta Info-regio hedabide digitalaren zuzendari José Luis Gamboa Arenasekin batera.

Mugarik Gabeko Kazetariak erakundearen arabera, gutxienez zazpi kazetari hil zituzten Mexikon 2021ean, eta zenbait ikerketaren arabera, azken bi hamarkadetan 150 inguru. ●

Osasun publikoaren alde

LAB / EH BILDU / IBAI IRIARTE

HEGO EUSKAL HERRIA / Joan den asteburuan, milaka lagun atera dira Donostia, Bilbo eta Gasteizko kaleetara gehiengo sindikalak deituta, kalitatezko osasun publikoa aldarrikatu eta Lehen Arreta jasaten ari den kolapsoa salatzen. Oso gogor mintzatu dira Jaurlaritzaren osasun publikoaren inguruan hartzen ari den neurriez, eta salatu dute erabaki politikoaren atzean osasun publikoa desegin eta osasun sistema pribatua indartzeko nahia ikusten dutela.



BILBO / Asteburu berean, COVID ziurtagiriaren aurkako protesta jendetsua egin dute Bilbon, Bizitza plataformak antolatuta. Askatasunaren izenean, ziurtagiria eskatzeko indarrean dauden neurriak bertan behera uzteko eskatu dute, "inoiz ezagutu gabeko totalismoari" atek ireki dizkiolakoan.

LUIS ARROYO



KOMORETARREN ARTEKO GIROA GAIZTOTUZ DOA AFRIKAKO MAYOTTEN, BESTE BEHIN, ETORKINAK JOMUGAN JARRIZ

Indiako ozeanoaren erdian dagoen Mayottera sartu nahian dabilta milaka immigrante. Irla honek Frantziaren menpe izaten segitzen du, eta horrek esplikatzen du miseria eta duten guztia utzirik bertaratu nahia. Azken hogeitun urteetan 12.000 desagertu dira ozeanoaren zeharkaldian. Uhartera heldutakoek ordea, kanporaketa edota arrazakeria dute usu saritzat. Komoretarren arteko elkarbizitza ustelduz doa. Abenduaz geroztik eskuin-muturra dabil etorkinen laguntzen dabilen Cimade elkartearen egoitza blokeatzen –Parisen partetik kezka izpirik eragin gabe–.

JENOFA BERTOKOIRIGOIN

Parisetik 8.000 kilometrotara da Mayotte. Indiako ozeanoko irla ttipia, Frantziako itsasoz haraindiko departamendu eta eskualde estatutua duena, eta 1841ean kolonizatu zutenaz geroztik Frantziaren mende dagoena. 376 km², Afrikako kontinentean kokaturikoak, Komoreetako artxipelagoaren barne. Miseria sozial handiko lurraldea, nahiz eta horri buruz ia sekulan ez den hitz egiten metropolian: %77 pobrezian bizi da –%14 direnean Frantzia metropolian–; langabezia tasa %30 da –%8 metropolian–; %29ak du ura etxean eskuragarri; erdibideko bizi maila 1.700 eurokoa delarik metropolian, 260 eurokoa da Mayotten; eta etxebizitzaren %40 dira burdin xaflazko txabola prekarioak –63.100 zenbatzen dituzte, urtero %4,1 igotzen da kopurua–. Datu horiek INSEE Frantziako Estatistika Institutuarenak dira. Hau ere “Frantzia”, hegoalde globalen, Parisetik urrun dagoen “Frantzia”.

Miseria sozial eta ekonomikoa ez dute ordea denek berdin pairatzen. Zentzu horretan, txaboletako egoiliarren profila esanguratsua da. Hasteko, %65 dira etorkinak eta bertan bizi diren frantsesen artean ere soilik %10 da metropolian sorturikoa.

Ofizialki 290.000 biztanle dituen irlan %50 dira kanpotarrak, hauetarik %95 Komoreetakoak. Nola ez zaie erakargarria irudituko 67 kilometrotara duten “Frantzia” puska? *Kwassa kwassa*

deitzen dituzte komoretarrez arrantza ontzi ttipiak –erran gabe doa hizkuntza hau ez dela ezagutua eta frantsesa dutela hizkuntza ofizial bakarra–, eta *Kwassa kwassen drama* berriz ontzi hauetan sartu eta Frantziara heldu nahian biziagaltzen dutenen errealitatea.

12.000 HILDAKO HOGEI URTEZ

12.000 herritar ito dira azken hogeitun urteetan Mayotte eta artxipelagoko Anjuan irlaren arteko 67 kilometroetan. Ontzi ttipi hauek ez diote gaina hartzen ozeano horretako gorabeheri eta aspaldian da “etorkinen hilerrri” gisa ezaguna gunea. Urek irentsitako gorpu hauen kontsiderazio eza deitoratzen du etorkinen laguntzen dabilen Cimade elkarteak: “Identifikatu gabeak dira gehienak. Alta, desagerturiko pertsona bakoitzaren gibelean daude ama bat, aita bat, bikote, ume, kusi edota lagunak, ziurgabetasunean eta dolua duintasunez bideratzeko ezintasunean daudenak”.

Bide segurua garatzeko ordez, migrazioa oztopatzeari bideraturik dituzte eta azpiegiturak Frantziak, maiz giza eskubideak urratuz gainera. Besteak beste, metropolian ez bezala, egonaldi baimenak ez die balio Frantziako Estatu osorako, ez eta Europan barrena bidaiatzeko; eta *jus solis* edo Frantzian sortutakoentzako frantses hiritartasunaren lorpena ere dute baldintzaturik, hau da, gogorturik. 136 lekuekin, errententzio

zentro handienetarikoa dute Mayotten, beste 90 leku gehitu behar zaizkiela epe laburreko atxiloketentzat. Frantziaren kanporaketan %60 bertatik bideraturikoak dira. Batezbesteko urtero 20.000 dira kanporatuak, usu asilo eskaera pausatzeko edo aztertzeko astirik ukan gabe. “Atxikipen denbora hain dute laburra non eta ez ditugun atxiloturiko guztiak ikusten; batezbesteko %20 ditugu laguntzen”, Solidarité Mayotte elkarteko zuzendariak dioenez.

Elkartasuna baino gehiago, zatiketa dute nagusi komoretarren artean, norberaren miseriaren errudunabestean kausitzeko joeragatik: alde batetik, Mayotteko komoretarrak, frantsesak, pobreak, eta bestetik, inguruko irltako komoretarrak, frantses ez direnak eta oso pobreak. Giroa izugarri gaitzotuz doa, Pariserentzat interes gabekoa izaten segitzen badu ere.

Adibiderik esanguratsuenetarikoa abenduaren 13az geroztik Cimade elkartearen blokeatzen dabilta eskuin-muturrekoak; hilabete bat baino gehiago dabilta elkarteko langile eta laguntzaileei bidea moztan, Frantziako Estatuaren inolako erreakziorik edota esku-hartzerik eragin gabe. Elkartearen uhartetik kanporatua izatea galdetzen dute. Justiziaren aitzinera jo du Cimadek, egoera desblokeatu eta etorkinei laguntza duinki bideratzen berriz has-teko gisan.



LE PENEN BISITA.

Eskuin-muturrak badaki boto andana bildu dezakeela Mayotte irlan. Etorkinen kontrako joera gogortuz doa Frantziaren menpe segitzen duen Afrikako irla ttipi honetan. Argazkian, Cimade elkarte blokeatzen dabiltzanei Le Penek egin bisita, abenduan.

KOMOREETAKO ARTXIPELAGOAREN BALKANIZAZIOA, PARISETIK

Komoreetako artxipelagoaren baitan segitu beharrean, beste hiru irletatik (Komore Handia, Anjuan eta Moheli) bereizi zuen Mayotte Frantziak. Nazioarteko zuzenbideari segi, 1974ko abenduaren 22an lortu zuen independentzia artxipelagoak, burujabetzaren berreskuratzeko gehiengo handia eskuraturik. Mayotte izan zen independentziaren kontra egin zuen bakarra. Hori ikusiz, artxipelagoaren balkanizazioa burutu zuen Parisek, Indiako ozeanoan presente izaten segitu nahian. Hizkuntza, kultura eta erlijio berak eta historikoki harreman sakonak zituztenak zatitu zuten axolarik gabe. Alta, estatu indepen-

dente gisa ezagutzen du Komoreetako Batasuna deitu artxipelagoa Nazio Batuen Erakundeak berak.

Haizeak eraman zuen garaiko itsasoz haraindiko departamendu eta lurraldeetako estatu-idazkari Olivier Stirnen printzipioa: "Galdeketa orokor bat egitearen alde agertu da Frantziako Gobernuak, eta hori hiru arrazoiengatik. Lehenik, juridikoa, nazioarteko zuzenbideari segi koloniak zituen mugetan oinarritzen garelako; bigarrenik, ezin dugulako estatutu aniztasun bat ukan artxipelagoan; eta azkenik, komoretarren arteko zatiketarik ez duelako xede Frantziak". Frantziaren menpe segitzeari buruzko bigarren erreferenduma antolatu zuten 1976an –aldi horretan soilik Mayotten–

eta independentziaren kontra egin zuen gehiengo handiak.

Ustez Frantziaren baitan gelditzeak ekarriko zizkien onurak ez ziren agertu, eta egoerak okerrera ere egin zuen: "Ezin dugu gehiago Eldoradoz hitz egin; bolborategi bihurtu zaigu Mayotte, zartagailu orenduna, noraezean dagoen Titanic bat", dio André Oraison juristak *Zinfos 974* komunikabidean. Hori horrela, egunez-egun gaiztotuz doa komoretarren arteko elkarbizitza.

Mayotte izan zuen kanpaina-birako lehen geldiene Marine Le Pen eskuin-muturreko hautagaiak abenduan. Cimade blokeatzen dabiltzanekin elkartu zen, entzun nahi zuten mezu arrazista helarazteko... botoen truk. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia · 943 420 624 · zinkunegioptika.com

Xabier Diaz-Esarte

IDAZLE, MAISU ETA ANTZERKILARI



PIRINIOETAN KOMUNITATE-AUTODEFENTSARAKO MUGIMENDU INDARTSUA DAGO



Zaraitzu ibarrean zaila da ekimen, proiektu edo elkarte bat aurkitzea Xabier Diaz-Esarteren bultzadarik ez duena. Iruñeko Udal Ikastolako sortzaile historikoetako bat da eta antzerkia zer den milaka iruindarri erakutsi diena. Idazle gisa bere bi pasio hauek, Zaraitzu eta haur antzerkia, landu ditu bere liburuetan.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Ezkarozekoa ala Iruñekoa zara zu?

Txikitatik Iruñean bizi izan naiz aitak he-
men zuelako lana, baina herrira joaten
ginen asteburu eta oporraldi guztietan.
Banestok Otsagabian jarri zuen bulegoan
hasi zen lanean aita. Banketxe horretako
administrazio kontseiluko kide bat zarai-
tzuarra zen eta erabaki zuen han, bere
herrian, sukurtsal bat zabaltzea. Gero aita
Iruñera eraman zuten eta Zabalgunean
genuen etxea Zaraitzuko kontsulatu mo-
duko bat bihurtu zen. Medikuetara, eros-
ketak, paperak egitera etortzen zirenak
gure etxetik pasatzen ziren.

Hirian bizi izan arren, oso gertu izan
dut beti herriko bizimodua. Gure ahaide
guztiak laborariak edo abeltzainak izan
dira betidanik eta gaur egun familiako
gazte batzuek lanbidearekin jarraitzea
erabaki dute. Horietako bat da Bardee-

tara jaisten den artzainik gazteena, adi-
bidez. 19 urterekin hasi zen jaisten, hala
erabaki zuelako. 1.500 ardi ditu gaur
egun eta bere anaiak, aldiz, behiak eta
behorrak.

Nolakoa izan zen zure lehen harremana euskararekin?

Eskolapioetan ikasten nuen eta hango
koroan euskarazko kanta batzuk erakus-
ten zizkiguten. Egun batean etxera joan
nintzen Migel aingeruaren kanta abestuz,
latina zela sinetsita, eta amak esan zidan
hori euskara zela. Orduan jakin nuen hiz-
kuntza hori existitzen zela eta are gehia-
go, nire amak ere bazekiela. Niretzat
errebelazio modukoa izan zen. Handik
aurrera herrira eta toki guztietara bela-
rriak tente joaten nintzen ea zer gehiago
harrapatzen nuen.

Ondoren, 10 urterekin, Seminariora
joan nintzen. Han igandero bizpahiru
apaiz biltzen ziren apezgai euskaldune-
kin. 200 pertsona baino gehiago, eta ni
ere hor sartzen nintzen. Gero batxiler-
goan hasi nintzen fundamentuz euskara
ikasten, Komertzio Eskolan ematen zituz-
ten klaseetan. Nire ondoan Carlos Garai-
koetxea esertzen zen. Nik Kazetaritza edo
Historia ikasi nahi nuen Iruñean, baina ez
ninduten hartu eta 1970ean Bartzelonara
joan nintzen Antropologia ikastera, eus-
kal antropologoa izan nahi nuelako. Oso
garai bizia izan zen, politikoki oso mug-
gitua. Hilabete gutxi batzuk pasata hona
itzuli eta erabaki nuen nire tokia Euskal
Herrian zegoela. Unibertsitatea utzi eta
Gorritira joan Jon Arrizibita apaiz eus-
kaltzale porrokatuarekin euskara ikaste-
ra. Oso xelebrea zen. Francoren aurkako



Xabier Diaz-Esarte

ESKAROZE, 1951



Idazlea, maisua eta antzerkilaria. 1978an abian jarri zen Iruñeko Udal Ikastolaren sortzaileetako bat izan zen, eta erretreta hartu arte ikastola horretako hiru ikastetxeetako irakasle eta antzerki taldeen zuzendaria izan da. Haurrentzako antzerki testuak biltzen dituzten bost libururen egilea da eta lehiaketa ugaritan izan da saritua. Bestalde, Zaraitzu ibarreko kulturaren ikertzaile eta dibulgatzaile sutsua da. *Tiza negra* eleberria, *Carreteras en el Valle de Salazar* kronika liburua eta 2021ean plazaratutako *Zaraitzuko ipuin zahar eta berriak* dira ibarrarekin lotutako bere idazlan nagusiak.

jarrera argia zuen. Behin batean, zigor moduan, Erriberako herri batera bidali zuten. Bera, temati, igandeetako predikuak euskaraz ematen hasi zen, herrikoak haserretu eta Gorritira bueltan bidali zuten arte. Copelecheko kamioi batekin egiten zuen lan, apaiz ezkertiarrek lan egiten zutelako. Urte bat eman nuen han eta ondoren Irakasle Ikasketak ikasi nituen.

Militantzia politikoa garai hartan hasi zinen?

Bai. ETaren bereizketaren garaia zen eta bilera teorikoetan parte hartzen hasi nintzen. Biolentziari uko egin zion Eusko Bazterrak talde troskistamarxistan nenbilen ni.

Nire lehen ekintza panfleto batzuk banatzea izan zen. Taldean mendizale eta eskalatzaile batzuk zeuden eta ikurrina handi bat genuen, toki enblematikoetan jartzen genuena. Behin, San Jose plazako gure lokalaren errejistroa egitera polizia etorri zelarik lortu genuen ikurrina ateratzea, eta ondoan zeuden klausura mojei eman genien gordetzeko. Batzuk euskaldunak ziren eta haiek komentuan gorde ziguten hainbat hilabetez, arriskua pasatu arte. Komentu horretan ere hasi ziren euskarazko mezak ematen Iruñean eta gu joaten ginen aberria egiteagatik. Horrez gain, abesbatza eta musika talde bat osatu zituzten eta herriz herri joaten ziren igandero euskal mezak ematen.

Gure taldea Liga Comunista Revolucionaria estatuko taldearekin elkartu zen, LKI sortuz. Ondoren, EMK, Euskadiko Mugimendu Komunistarekin bat egin eta Batzarre sortu zen. Eta hori egon naiz beti militatzen, duela bi urtera arte.

Germán Rodríguez talde horretako kidea zen eta oso laguna nuen. Maisu ikasketak bukatutakoan lanean aritu nintzen hainbat tokitan aitak Baneston lan egiteko aukera eskaini zidan arte. Nik ez nekien ezer kontabilitateaz eta Germán, aldiz, oso ona zen horretan. Oso buru argikoa zen eta proposatu zidan berak niri kontabilitatea irakatsiko zidala, trukean nik euskara erakusten banion. Urtebete aritu ginen horretan.

Eta Udal Ikastolara nola iritsi zinen?

Banketxean lanean hasi baino lehen lagun batzuk etorri zitzaizkidan Udal

Ikastolaren sorreran parte hartzeko proposamenarekin. Ideia zen euskarazko irakaskuntza ikastetxe pribatuetatik atera eta sare publikoan sartzea. Une horretan Euskal Herri osoan ez zegoen halakorik. Talde honetako gehienak San Fermin eta Paz de Ziganda ikastoletatik zetozen familiak ziren. Ezkerreko militanteak eta euskaltzaleak.

1978ko urtarrilaren 13an Txantrean hasi ginen 200 bat umerekin, moja Kanosianek beren ikastetxean utzitako ikasgeletan. Oso *progreak* ziren italiar jatorriko moja horiek eta auzoko saltsa sozial guztietan sartuta zeuden.

Une politiko berezia zen Iruñean. Oso udal aurrerakoia zegoen eta ikastolaz gain, Andraize, haur eskolak eta beste ekimen asko abiarazteko bidea zabaldu zuten.

Nik, egia esan, ez nuen maisu izateko batere bokaziorik, baina sartu bezain laster buru belarri murgildu nintzen proiektuan.

Nola gogoratzen duzu hasiera hura?

Ederra bezain gogorra. Ahalik eta auzo gehienetara iristea zen asmoa. Oso arrakastatsua izan zen. Urteetik urtera gero eta talde gehiago sortzen ziren han eta hemen, eta guk beti lokalak bila ibili behar izaten genuen. Erromesaldi latza izaten zen urtero. Ez dakit gurasoek nola aguantatu zuten hainbeste, baina beste garai bateko gurasoak ziren, jakina! Urte batez, adibidez, ia hiru astez egon ginen klaseak Gazteluko plazan ematen, protestagisan, tokirik ez genuelako.

Euskal Herri mailan Udal Ikastola izugarria izan zen, euskarazko irakaskuntza sare publikoan txertatzea lortu zuelako, eta baita erabiltzen zuen pedagogia berritzailearengatik ere. Berpizkunde pedagogikoa pil-pilean zegoen momentu hartan. Aktibismo ikaragarria zegoen eta hori dena praktikan jarri zen gure ikastolan.

Kide guztiak ginen aitzindariak eta praktikan jartzen genituen gure eskuetara iristen ziren mota guztietako ekimenak. Neskak eta mutilak elkarrekin zeuden, nahiko gauza berria garai hartan, irakurketa-idazketa prozesua atzeratu genuen, programazioa eta materialak geuk egiten genituen. Hamar bat urte aritu ginen horretan. Liburuak, fitxa guztiak... guk asmatzen



genuen dena. Oso metodologia praktiko eta aktiboa zen. Hasi ginen mota guztietako jaiak egiten kalean: Olenzero eguna, Inauteriak, kanpaldiak... Ikasturte bukaeran haurrak hartu eta mendira joaten ginen astebete ibilaldiak egitera. Goizean goiz sartzen ginen ikastolan eta arratsaldeko zazpiak arte egoten ginen han, guztiok emozioz beterik, erronka ikaragarri polita zelako.

Ni berehala hasi nintzen antzerkia ematen eta berehala onartu zen eskola-programaren parte izatea. Gero eta gauza gehiago egiten genuen. Hamar urtez Udal Ikastolako hiru ikastetxeetan, Hegoalden, Axularren eta Amaiurren, aritu nintzen antzerkia ematen. Hamabi talde eramaten nituen urtero eta ikastetxe bakoitzean bi antzezlan desberdin muntatzen nituen. Eromen hutsa, baina oso polita.

Zein dira antzerkiaren onurak?

Memoria, hizkuntza eta ahoskera lantzeko oso ona da eta, horrez gain, gorputz adierazkortasuna, elkarlana, talde lana, inplikazioa, konplizitatea... Psiko-

logoarengana jo behar ez izateko baliabide ezin hobea izan daiteke antzerkia kasu batzuetan.

Garrantzi gutxiegi ematen zaio gaur egun?

Zalantzarik gabe. Interesak desbideratu dira. Artea eta sorkuntza alde batera gelditzen dira egungo eskola sisteman. Garai batean Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak laguntza handia eman zuen eskolatan eta institutuetan euskarazko antzerki taldeak sustatzeko. Xole Erbiti teknikari apartak bultzada ikaragarria eman zion horri. Hasieran lehiaketa moduan eta gero topaketa gisa, oso mugimendu bizi lortu zen. Autobusak jarri eta diru pixka bat ematen ziguten beste herrietara joateko: Lesaka, Bera, Leitza, Iruñerriko toki asko, Irurtzun... eta hango taldeetako partaideak ere eza-gutzeko aukera izaten genuen. Hori ikasleentzat ikaragarria zen.

Zaraitzuko historia eta kultura zabaltzea da zure beste pasioa. Berriki ipuin zahar eta berrien

**“
Egun batean etxera joan nintzen Migel aingeruaren kanta abestuz, latina zela sinetsita, eta amak esan zidan hori euskara zela, eta are gehiago, nire amak ere bazekiela”**

bilduma plazaratu duzu. Zer aurkituko dugu bertan?

Osozara 53 ipuin dira, euskaraz eta gaztelaniaz, horietako batzuk zaraitzueraz idatziak. Alde batetik Resurrección M^a de Azkuek, Arturo Campionek, Federico Garraldak eta Zoilo Mosok erreskatatutako ipuinak hartu nituen eta, bestetik, herriz herri ibili nintzen adineko bizilagunek kontatutako istorioak biltzen. Azkenik, gaurko hamahiru kontakizun (XXI.mendekoak) gehitu ditut, gai garai-kideak jorratzen dituztenak.

Ipuin tradizioaletan izaki mitologikoak –sorginak, laminak, Sanson, Basajaun, Gartxot, Mari...– eta animaliak –axeria, hartza, otsoa, belea, usoa, Orhiko txoria...– protagonistak dira eta badira ere memoria historikoaren alorrekoak, lanbideetan oinarritzen direnak –artzain ibiltaria, almadiazaina, kontrabandista...–.

Baten bat nabarmenduko zenuke?

Zalantzarik gabe, Gartxot, *Itzaltzuko bardoa*, Campionek duela 104 urte idatzia. Haraneko mugak gainditu dituen istorioa da. Asiskoren filmak eta komikiak, Lertxundiren abestiak eta Gartxot Ekimena elkartearen dibulgazio-ahaleginak haren hedapenari izugarri lagundu diote. Oso istorio dramatiko da, baina bere mezua unibertatsala da: herri baten kultura eta nortasuna azken ondorioetaraino defendatzea besteen inposaketan aurrean.

Nola ikusten duzu Zaraitzu gaur egun?

Zoritxarrez ematen dugun irudia despopulazioarena eta tristurarena da. Batzuek pentsatuko dute ez duela merezi han bizitzea beti kexaka ari garelako. Errealitate gordina da, hori egia da, baina bestaldetik nabarmendu behar da azken zortzi-hamar urte hauetan hango jendeak hausnarketa prozesu sakon bat egin duela Pirinioak Bizirik! taldeak bultzaturik. Egoera latza izan arren ez dute amore eman eta lortu dute Nafarroako politikagintzaren agendan Pirinioetako errealitatea mahai gainean jartzea. Jende asko inplikatu da, hainbat mailatan. Orain arte nagusi zen jarrera ezkorra, pasibo edo apatikoari buelta eman eta Iruñean bizi diren piriniotar gazte batzuk bailarak defendatzeko eta berpizteko proiektuetan hasi dira inplikatzeko. Gazte batzuek gurasoen herrira bizitzera joan nahi dute. Kopuru txikia da, Zaraitzun hoge bat gazte izan daitezke.

Gutxi dira, baina orain dela hamar urte zero ziren. Pirinioetako haranetan asko hitz egiten dute horretaz eta ahalduntze kolektiboko mugimendu indartsua dago. Kontzientzia hartzeko eta komunitate-autodefentsarako mugimendu interesgarria dago.

Otsagabian, adibidez, gazte batzuek ardiak eta euskal txerriak jarri dituzte, beste batzuk gazta egiten ari dira eta zahartze aktiborako enpresa bat sortu berri dute. Fenomeno berri-berria da. Horrekin etorkizuna bermatuta dagoenik ezin da esan, baina behintzat jaiotze tasa handitu da pixka bat. Izan dira urte batzuk bailara osoan bate-re jaioberririk gabe, eta azken hamar urteotan bada gutxienez nolabaiteko birjartze-tasa bat.

Zer hobetu daiteke?

Familia gazteen alde gauza asko egin daiteke: etxebizitza aurkitzea zaila da, eskoletako jantokien prezioak garestiak dira, eskola-garraioan gabezia asko dautte, legeak eskatzen dituen ikasle gutxieneko kopuruak egokitu behar dira... Horren adibide da Europako dirulaguntzaz Ezkarozen zabaldu zen haur eskola. Izugarri polita egin zuten, baina berehala



itxi zuten haur gutxiegi zegoelako. Itxita izan zuten urte oso batez eta bitartean familiek pertsona bat kontratatu behar izan zuten eta etxabe batean moldatu, ume horiei arreta emateko. Huescan haur bakar batekin eskolak irekita zuden eta hemen ezin. Asko borrokatu ondoren, azkenean lortu genuen zabaltzea. Orain multzo polita dago, hamahiru edo

hamalau haur. Irakasleen baldintzetan ere duela ez aspaldi lortu zen gutxienez hiru urterako kontratuak izatea eta egonkortasun hori izugarri nabaritu da. Batzuek etxeak erosi eta alokatu dituzte bertako herrietan.

Pirinioetako errealitatea kontuan hartu behar da eta horri moldatu legeria, kopuruak eta beste gutzia. ●



zientzia azoka



Izena emateko epea zabalik, 2022ko urtarrilaren 10etik aurrera

zientzia-azoka.elhuyar.eus



ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2021-2022

EMAN IZENA!



Antolatzailea

elhuyar

ezagutuz aldatzea









Kolaboratzaileak





Europar Batasunaren lan erreforma



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, behin behineko langileak %20tik gora dira enpresa gehienetan. Heren batean, lanpostu finikorik ez duen langileen ehuneko horrek plantilla osoaren %40 gainditzen du. Kontratazio mota nagusia produkzioaren gorabeherengatiko behin-behineko kontratua da, eta obra eta zerbitzu kontratuak jarraitzen dio. Nafarroaren kasuan, 2021. urtean sinatutako kontratuetatik, behin betikoak %6,85 izan ziren; kontratuen erdia produkzioaren gorabeherengatiko behin-behineko kontratu motakoa izan zen, eta kontratuen %22, obra eta zerbitzukoa.

Datuek agerian uzten dute Euskal Herri penintsularreko lan merkatuan dualtasun nabaria dagoela, baita sistemikoa dela ere. Postfordismoaren garai honetan, azpikontratazioa eta lan baldintzen prekarizazioa da kapitalaren lanarekiko estrategia, azken 50 urteetan sakonduz joan dena. Lan-malgutasuna ziurtatzeko, beharrezkoa da lan-eskubideak ukatzea, eta eskubide horien erabilera murriztea, enpresen jazarpenaren eta errepresioaren ondorioz. Horrela azal daiteke aldi baterako kontratazioaren iruzurrezko erabilera masiboa. Ez da anomalia, normaltasuna baizik.

Hara non Madriletik lan erreforma berria eskaintzen diguten, langileontzako aurrerapauso handia dela esanez, dualtasun horrekin bukatzeko bidea hartzen ari dela azpimarratuz. Lan-merkatua-

Gobernuaren,
patronalen eta
sindikatuaren arteko
akordioak ez du
2010eko eta 2012ko
Lan Erreformen
elementu nagusien
aurka egin

ren dualtasuna eten nahi bada, ziurrenik lan-harreman osoan eragin beharko da, ez bakarrik kontratazio atalean. Erreformen, sartze-malgutasuna landu da –hots, kontratu motak–, baina ez da landu irteera-malgutasuna –kaleratzeak eta lan kontratuen amaierak–, langilearen posizioa indartzen duten neurriak. Kaleratzea librea da gaur egun; enpresak, ordainduz, legezkontrakotasuna egin dezake.

Gobernuaren, patronalen eta sindikatuen arteko akordioak ez du 2010eko eta 2012ko Lan Erreformen elementu nagusien aurka egin; hau da, enpresen barne- eta kanpo-malgutasunaren hedapenaren aurka. Barne-malgutasunak lan baldintzen hainbat atal aldatzea enpresaren esku uzten du: ordutegia, lantokia, lan txandak... Kanpo-malgutasuna kaleratze librea oinarritzen da, zeina erraz-

tu egin den, geroz eta merkeago jarritz. Arrazoi ekonomiko, produktibo, tekniko eta antolaketa alorrekoetan oinarritutako neurrien malgutasuna aipagarria da, kaleratze merkeak eta enpresaren barne neurriak hartzea errazten duena.

Atzean Europako Batasuna dago, Europako funtsak jasotzeko baldintzetako bat lan erreforma hau izanik. Horretarako, iruzurgile-joko hau planteatu da, lotsa eragiten duen behin-behineko kontratazioa estatistiketan murrizteko, beste kontratu mota prekario batzuk sustatuz. Sistemikoa den arazoa ez da Langileen Estatutuko artikulua bat aldatuz gaindituko. Bestetik, 1978ko Erregimenak bultzatutako eta lagundutako eredu sindikalaren birlegitimatzea dago, hainbat alternatiba sindikal kanpoan utzi nahi duena.

Hamarkada hau ekonomikoki eze-gonkorra izango da. Aldaketa teknologikoak azkar barneratu nahi izango dira eta enpresa egituretan eraldaketak izango dira. Lurralde bakoitzak Europako eta munduko ekonomian gaur egun jokatzen duen papera kolokan dago, etorkizuneko ekonomia espezializazioaren inguruan ziurgabetasuna hedatuz. Horren aurrean, botere ekonomikoek lan gatazkak kontrolpean nahi dituzte, sistemarekin konpromisoa duen sindikalismo bat behar dute. Asmo horri jarraitu diezaiotza Europatik bideratu eta Madriletik aplikatu nahi den azken lan erreformak. ●

Tradizioak



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Pasa den Gabonetan atera nuen armairutik hamabost urtez gordeta izan dudun baserritar jantzia. Ordu-ko mutil-lagunarekin harremana bukatu zenean, herriko dantza taldea utzi eta bizitza berrasmatu nuen Bilbon. Trikipoteoak eta udako erromeriak atzean geratu ziren. Mugimendu antiarrazistan eta feministan sartu nintzen, lagun berriak egin, eta horiekin murgildu nintzen Bilbi eta Sanfraneke gau giro anitzean. Aste Nagusian, malenkoniaz hurbiltzen nintzen Plaza Berriko dantzaldietara, baina ez nuen Larrain Dantzan parte hartzeko bikoterik.

Pasa den Gabonetan berreskuratu nuen jantzi eder hura, nire familia *bollo* ederrarekin Olentzeroren kalejiran ateratzeko. Nire bikotekide ez-bitarrak mahoizko frakak jantzi zituen, eta alabak fraka marradunak. Bera izan zen eskolako bi urteko gelan genero binarismoarekin apurtu zuen bakarra. Azaldu genion datorren urtean erabakiko duela Olentzero eta ama bezala jantzi, ala Mari Domingi eta amatxo bezala.

Berezia izan da gona, amantala eta artelezko xala testuinguru berri honetan jartzea, bateraezinak ziruditen nire biografiako bi alor elkarlotu ditudalako: gustuko ditudan tradizioak jarraitzea, heteroarauaz at.

Izaskun Aranbarri lesbiana euskaltzalea elkarrizketatu berri dut “Nola esan/ izan bollera euskaraz” proiekturako. Azaldu dit berak orain dela urte gutxira arte frustrazioz bizi izan duela lesbianismoa eta euskara olioia eta ura bezalakoak zirela sentitzea. Izan ere, Bilbon aurkitu zuen giro *bolloa* erdalduna zen eta Bilboko giro euskaltzalea, heteroa.

EHGAMek pasa den azaroan antolatutako KOSA topaketetan ezagutu nuen Aranbarri, euskarari buruzko solasaldian. Publikotik hitz egin zutenen artean ere, halako kontakizunak errepikatu ziren: esaterako, Gipuzkoako herri euskaldun batean hazi eta Londresera sexiliatu zen lagun *queer* ez-bitarraren testigantza.

Sexilioaren prezioa aipatu zuen EHGAMeko Amets Jordanek ARGIAN publikatutako elkarrizketan, Mikel Garcia Idiakezek jaso zuenez: “Madril,artzelona, Londresera sexiliatzen direnez, leku horietan sexualki askeago eta zoriontsuago izango direlakoan, sarri lagun eta senideak atzean utziz, sarri euren burua enplegu prekarizatueta eta alokairu garestietara kondenatuz”.

Lagun eta senideez gain, euskara, euskal kultura eta tradizioak ere utzi ditugu atzean. Finean, erroak.

Gu garena izan ahal izateko, gu garen horren alde bat anputatu behar izan dugu nolabait.

Gauzak aldatzen ari dira, hor ditugu, besteak beste, *bollo* bertso-saioak; Gasteizko B.A.L.A. kolektiboa *bolloja-betza* euskaratik lantzen; Virginie Despentes, Monique Wittig eta Adrienne Rich euskarara itzuli dituzte argitaletxeek...

Baina posible al da folkloreaken esparruan ere zubiak eraikitzea? Bai, noski, hor diugu Oier Araolazaren ikerketa lana. Baita Ines Osinagaren trikitia, diskurtso feminista eta, bereziki, #mauriziaketzdaunorhil proiektua ere. Edota Lidia García Espainiako koplak eta zarzuelari buruz egin duen irakurketa lesbofeminista.

Berandu deskubritu dut, ARGIAri esker, *Bazterreko dantzariak* proiektua, Ibai Fresnedo eta Kepa Blázquez aktibista marikiek 2016-2019 urteen artean garatu zutena: “Euskal dantzetan gaur egun dagoen iruditeriak, jantziek eta abarrek hegemonikoa dena ordezkatzeko dute. Guk tokirik ez duena ikusarazi nahi dugu: marikak, bollerak, kanpotik etorritakoak, lodiak, elbarriak...”, azaldu zuten. Nola egin zuten? Euskal dantzen bidez. ●

Euskararen lekua



**NEREA IBARZABAL
SALEGI
BERTSOLARIA**

Frantziako Hezkuntza ministerioak zehaztu zuen “baxoko proba batzuk eskualdeetako hizkuntzetan pasatu ahal izango direla”, eta Seaskako ikasle, irakasle eta gurasoak hori gauzatzearen alde mobilizatu ziren joan den astean. Pauso bat litzateke, nahi bezain handia izan ez arren, eskubide hori lortzea.

Ezin izan dut saihestu neure burua euskarazko lehenengo proba horren aurrean irudikatzea. Trauma zahar bat piztu zait, mesfidantza moduko bat, honezkero badakienarena euskara hautatzeak hainbat arrisku dakartzala berarekin; euskarari zenbait eremutan lekua egiteak ez duela esan nahi euskara eta euskaldunak errespetatuko dituztenik.

Oroitu dut gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egitea erabaki nueneko. Azterketa irakurri eta, aitortzen dut, une batez damutu egin nintzela nire militantziaz. Nor-nork eta nor-nori-nork formak inoiz baino garrantzitsuagoak zirenean (nork utziko dio pasatzen nori, nor geratuko da geldirik, nork ezin du nor aurreratu), galderak akats gramatikalez josita zeuden. A, B edo C aukeratu bitartean, pentsatzen nuen: “Mesedez, zuzentzailea behintzat izan dadila euskalduna, jabetu dadila galderaren baitako nahasmenduaz, barka nazala eta asalda dadila azterketa honen egilearen aurrean”.

Antzekoak gertatzen dira unibertsitateko edo lanbide heziketako apunteekin. Gai espezializatu mordo bat erdaraz ematen dira euskarazko graduatan ere, edo, bestela, begiak erre eta bihotza belzten duten itzulpen negargarriak jasane behar izaten ditu ikasleriak: esaldi erdaldunen kalko ortopediko *googledarrak*, testu kamutsak, euskararen formatik eta logikatik urrun dauden letra pilo ulertezinak. Zer gertatzen da hala-koetan? Erdarazkoa aukeratzen dela, euskarazko testuaren berrinterpretazio lanak aurrezteko (zenbait tabernatako menuak irakurtzean bezala). Eta zeresanik ez sare-sozialetan edo aparailu elektronikoetan euskara aukeratzeak zer dakarren. *It's your lagunaren urtebetetzea! Wish berari zorionak! You have one jakinarazpen berri.* Bai ederra, elebitasuna.

Ohitu egin gara arriskura eta gutxiespenera, beldurrez irakurtzera kartelak, seinaleak, paragrafoak; geuk zuzentzen ditugu barrutik akatsak, baina akatsa bera ere ez da arazo nagusia ia, errespetu falta baizik, ezerk ez asaldatzea eta ezer espero ez izatea. Hegoaldeko unibertsitateerako sarbide frogan gazteleraz eskatzen den hizkuntza maila eta euskarazkoa alderatzea nahikoa da horretaz jabetzeko. Lekua egiteak ez du balioan jartzea bermatzen. ●

Militantzia



**LAURA MINTEGI
LAKARRA
IDAZLEA**

Militantzia” hitzaren jatorria bortizkeriarekin eta gatazkarekin lotuta dago, militanteak militarrek zirelako, edo milizietako kideak. Militantea, baina, ideia batzuekin bat egin duena ere bada, eta ideia haien defentsan elkartasun hutsez aritzen dena.

Militantzia pil-pilean egon zen XX. mende osoan, ezkerrek burutu zituen iraultzen edo gizarte mugimenduen harira.

Gerora militantzia “profesionalizatu” egin zen. Ogibide bihurtu zen eta, egonkortze ekonomikoarekin batera, jarra militarerik ez zuten pertsona asko militantziaren profesionalak bihurtu ziren. Akabo.

Egiatzko militanteak txalotu nahi ditut, eskuzabal eta ezer espero gabe jarduten dutenak, denbora eta indarra musu-truk ematen dutenak, injustizia salatzearen: etorkinei babeseta eta ahotsa ematen diete, babesgabeen kaleratzeak saihesten dituzte, errefuxiatuentzat janaria presatzen dute, edo hizkuntzaren eta kulturaren alde egundoko lana egiten dute maitasun hutsagatik.

Militanteentzat txaloa. Egia da berriek egiten dutena erakundeek egin beharreko lana dela, baina militanteek egin ezean, erakundeek ez zuten ikusi ere egingo lan hori beraiei dagokienik. ●

D eredia baino hoberik ez dago



MIKEL BASABE
KORTABARRIA
IRAKASLEA

Berriak Hizkuntza Politikarako sailburuorde Miren Dobarani eginko elkarrizketan pare bat gauzak eman zidaten atentzioa. Lehenengoa, zein erraz jotzen ditugun egiazat benetakoa ez direnak. "Eremu akademikoan eta formalean euskara bermatuta dago", dio sailburuordeak. Bada ez: Arabako eta Bizkaiko lanbide-heziketan ez dago bermaturik. Jaurlaritzak ez du bermatzen. Datu bat: 2010-11 ikasturtean, erdi mailako zazpi ziklo ikas zitezkeen euskaraz Araban. Aurten sei. Duela hamar urte, bigarren hezkuntzako ikasleen %35ek ikasten zuen D eredian Araban; aurten %53,83k (eskola publikoan, %79,23k). Jaurlaritzak ziurtatu du euskara Arabako institutuetan, baina lanbide-heziketan ahaletan ere ez da egin.

Beste baieztapen aipagarria are arrisurtsuagoa iruditzen zait: "[euskara nahikotasunez ikasteko] ez du balio D eredu batek. Ez da nahikoa. Horregatik proposatu nuen ikastetxekako hizkuntza proiektuak egitea, kontuan hartuta ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen ezaugarriak".

Herritar elebidunak
hezteko, esperientziak
diosku eskola
publikoa dela apustu
sendoena, eta euskara
hutsezko irakaskuntza
nahitaezko tresna

Zatika:

"Ez du balio D eredu batek". Jakina D eredia ez dela nahikoa: ez dago nahikoa den eredurik. Baina D ereduak baino emaitza hoberik ez du beste ezein eredu eman, ematen, ezta emango. 3L eredu porrot izugarria izan da (ebaluazio diagnostikoaren datuek frogatzen dute).

"Ez da nahikoa". Ados: eskola bera ez da nahikoa. Eta ados, hurrengo erantzunetan Dobaraneke proposatutakoekin: eskola ez denez nahikoa, euskara eskolatik kanpora atera behar da, aisialdira,

modu antolatua, sistematiko eta bitarteko egoki hornituan.

"Ikastetxekako hizkuntza proiektuak egitea, kontuan hartuta ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen ezaugarriak". Hara! Gune soziolinguistikoa? Ba al dago EAEn derrigorrezko eskola-aldia amaitzean gaztelaniaz nahikotasunez ez dakien gazterik? Ez, ezta? Orduan? Erdalguneeetan, ezin D eredian baino euskara gehiago eskaini. Euskalguneetan, zer kalte dakar? Ala Oartzungo 16 urtekoek ez dakite nahikoa gaztelaniarik eta ikastordu gehiagoren premian daude?

Herritar elebidunak hezteko, esperientziak diosku eskola publikoa dela apustu sendoena, eta euskara hutsezko irakaskuntza nahitaezko tresna, zeina, gune soziolinguistikoaren arabera, eskolaz kanpoko ahaletan ere gehiago ala gutxiago osatu beharko den.

Behar dugu, bai, irakaskuntza-metodologia errotik hobetu eta euskararen erabilera (ahozkoa zein idatzizkoa) helburu gisa ipini. Baina ez ukitu euskara hutsezko eredia, 3Lk erakutsi baitigu horrek zer dakarren: euskara gutxiago jakitea. ●

2022 EuskarAbentura

expedizioa

IZEN EMATEA ZABALIK!

- 2005-2006an jaiotako gazteak
- Martxoaren 4ra arte

▶ www.euskarabentura.eus

Babesleak

Laguntzaileak

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra,1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Nazionalismo espainiarraren armak gerra kulturala irabazteko

Hamarkada hau arma sinboliko berriak karga-karga eginda abiatu du nazionalismo espainiarrak. Sumatzen da. Sentitzen da. Zenbatu daiteke. Baina nola lortu dute eztabaida publikoan horrela eragitea? Pablo Batalla Cueto historialari eta idazle asturiarrak iaz argitaratu zuen *Los nuevos odres del nacionalismo español* liburuak (Nazionalismo espainiarraren zahagi berriak) material ugari eskaintzen du fenomenoaren behar bezala ulertzeko.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Twitterren @negukobaratza erabiltzaileak bideo bat igo du. Espainiako ereserkia entzuten da. Ume bat ageri da soka bati tiraka Espainiako bandera igotzen, baina goraino eraman duenean oraindik estali egiten du azpian gordeta daukan sekretua. Horregatik, umeak eskuarekin erretiratu du trapu gorri, hori eta gorria. Urdaiazpiko bat. Haurrak orain eskua kopetara eraman du bisera eginez. Ez, bisera ez, agur militarra da. Kamera eszenaren ikusleengana biratu da: hamabost bat lagun agertu dira, familia bat. Denak agur militarra egiten ari dira: haurrak, gurasoak, amona. Kamerak berriz ere urdaiazpikoa jarri du pan-

tailaren erdian. Eta justu une horretan, “biba Espainia!” oihukatu du helduetako batek. “Biba!” erantzun dute familiako gainontzeko kideek. Txaloak. Bukatu da ereserkia, has daiteke bazkaria.

“Konturatu gara bi urte barru jende honek aginduko duela Espainian?”, galdetu du bideoa igo duen txiolariak. Mezua argitaratu duen astean publiko egin da boto-asmoari buruzko proiektzio bat, Sigma Dos inkesta etxeak *El Mundo* egunkariarentzat egin: PPK eta Voxek elkar hartuta Espainiako Gobernu hartzeko modua izango lukete horren arabera. Bi urtean gauzak asko alda daitezke politika instituzionalean, baina eguneroko politikaz ari bagara –etxee-

Augusto Ferrer-Dalmauren *Rocroi, el último tercio* koadroa. Soldadu espainiarrek parte hartu duten gerretan oinarritutako koadro hiper-errealisten bidez, erresistentzia nazionalaren epika goratzen du eskuin berriaren artista gogokoena.



tan, tabernetan edo sareetan gertatzen den horretaz, alegia– Espainiako Estatuan zerbait aldatu dela pentsatzeko motibo asko dago. Nazionalismo espainiarrak lehen ez bezalako presentzia hartu du eztabaida publikoan.

Joera horrek barregura eragin izan du maiz Euskal Herriko abertzaleen eta ezkertiarren artean, plazara ateratzeko jantzen dituen elementu erdifriki erdi-faxistengatik. Baina bultzak nola datorren ikusirik, irribarreak kezkaz beteriko aurpegi bihurtzen hasi dira, Moncloara neofrankismoaren zaldi gainean igota iritsi daitekeen presidente batek ekar dezakeenaren beldurrez. Garaia iritsi da galdetzeko



AUGUSTO FERRER-DALMAU

nola ari den Espainia ulertzeko modu atzerakoi eta esentzialista hori halako giharra hartzen.

GOL BATEK ASKATUTAKO PIZTIA

2010. urtea, Hegoafrika: Espainiako gizonen futbol selekzioa Munduko Txapelketako finala jokatzeko ari da Herbehereen kontra. 116. minutuan, jokaldi nahasi samar baten ondoren, baloia Andres Iniestaren oinetara iritsi da area barruan, indar guztiekin ostikatu du eta Stekelenburg atezainak ukitu arren, ez du gelditu. Gola da. Munduko Txapelketa lortzeko balio duen gola. Selektzio horren historian inoiz lortu gabekoa. Eta krisi ekonomiko gordinen sartuta da-

goen herrialde baten morala altxatzeko erabiliko dena: Pablo Batallaren arabera, baliteke XIX. mende hasierako Independentzia Gerraz geroztik aurrekaririk ez daukan olatu patriotiko bat nagusitu izana Espainiako Estatuko herritarren artean garaipen horren ondorengo asteetan. Hegoafrikako "heroi" inguruan mito bat eraikiko dute. Jokalariak herri txikiak direla goraipatuko da, jende xumea direla –eta horrelako jatorririk ez dutenen kasuan, asmatu egingo zaie–, ideia bat indartu beharrez: estatuko txoko guztietatik zetozen hamaika aldeano-k bat egin zutela proiektu amankomun batean. Espainiak, bat eginda, lor dezakeela handitasun unibertsala.

Kirol prentsak misioztat hartuko du "gutasun" hori indartzea: "2010eko ekainaren 16ko *Marca*-ren azalak bihotz bat erakutsi zuen selekzioaren elastikoa zeukan gizon baten bularretik ateratzen, '46.745.807 taupada' titularrarekin: Espainiako herritarrak adina zenbatu zituen *Marca*-k, nahiz eta baziren, eta ez kopuru txikian, identitate espainiarra baztertzen zutenak eta *la Roja*-ren porrota nahi zutenak". Baina egia da, 46 milioi ez ziren arren, espainiar askok ospatu zuela garaipena. Eta bide batez, lehen ez bezala identifikatu zen bandera monarkikoarekin, zenbait eslogan bere egin zituen –"espainiarra naiz, zertan irabaziko dizut?"–, aspertu arte erre-

pikatu zen “yo soy español, español, español” kanta; eta hori guztia gertatzen zen bitartean, nahiko isilpean pasa zen selekzioak txapelketan debuta egin zuen egunean José Luis Rodríguez Zapateroren gobernuak onartu zuen lan-erreforma, kaleratze merkeagoak eta soldata baxuagoak ekarriko zituen.

BIKTIMAREN EPIKA

Futbolarien jatorri apala azpimarratzeak pistaren bat ematen du neonaizionalismo espainiarra azken urteetan ekoizten ari den imajinarioaz, baina akaso Blas Lezo XVIII. mendeko marinela pasaitarrarekin gertatzen ari denak argiago erakusten du operazioa: almirante horrek, zeinak Espainiako Itsas Armadarekin ingelesak garaitu zituen Cartajena de Indiasen (gaur egun Kolonbian dagoen hiria), eskultura bat dauka 2014tik Madrilgo Kolon plazan. *Crowdfunding* bidez finantzatu zuten estatua, eta ekimenak jasotako babes ekonomikoak adierazten du bestelako heroi bat fabrikatzeko gogoia.

“Lezo ez zen izan erasoko heroi, defentsakoa baizik, eta horrek bat egin du diskurtso batekin, jada ez dena elikatzen D’Annunzioren garaiko irredentismoaz eta *espazio bitalaren* zabal-kundeaz, inguratutako gotorlekuaren erresistentzia epikoaz baizik, migrazioetatik hasi eta *marxismo kultural*-eraino jasaten ari den inbasio ugariren aurrean”. Espainia galbidean dagoen nazio bezala, Kataluniako independentismoaren, komunisten, gay eta lesbianen, hizkuntza gutxituen “inposizioaren” eta beste inbaditzaile askoren jazarpena jasaten. Batallaren arabera, Lezoren itxura fisikoa ere lagungarria da eraikuntza sinboliko horretan. Hankamotza zen, begibakarra, eta ezin zuen beso bat mugitu, parte hartu zuen gatazketan jandako zauriengatik. “Heroiaren anputazioetan errepresentazio grafiko egokia aurkitzen du eskuin berri honen biktimismoak eta jende xehearen epikak”. Gehitu horri, noski, euskal herritarra zela. Euskal herritar “ona”: Espainiaren alde borrokatu zena.

Kontua da, Blas Lezok historialarien zirkuluetatik harago lortu duen fama nahiko fenomeno berria dela. Baliteke 2010ean Arturo Perez-Reverte idazleak Vocento taldeko egunkariekin igandee-tan banatzen den *XL Semanal* aldizkarian publikatutako artikulu batek jarri izana fokua haren gainean. Geroztik, sarean abaroan pop ikono bihurtu da. *Foro-*

Blas Lezoren omenezko eskulturaren inaugurazioa 2014an Madrilen. Almirante pasaitarra ikono bihurtu da azken urteetan zirkulu kontserbadoreetan.



MADRILGO UDALA

coches atariak –gaztelaniaz erabiltzaile gehien dauzkan foroetako bat– 2016an kanpaina abiatu zuten armada britainiarra *troleatzeko*: Erresuma Batuan herritarren esku utzi zuten barku militar berri bati zer izen jarri eta *Forocoches*-eko erabiltzaileek Blas Lezo jartzearen aldeko botoak eman zituzten masiboki, aukera hori botaziotik erretiratu behar izan zuten arte. Liburuak, kamisetak, USB memoriak... denetan agertzen da gaur egun. Iraganetik berreskuratua, zenbaiten ezinegon identitarioei aurre egiteko lemazain bihurtu da.

Espainia biktima gisa agerraraztea bihurtu da estrategietako bat. Imajinario horrek heroi berriak bilatu ditu, Blas Lezo almirante mutilatua adibidez



Santiago Abascal-Vox alderdi ultraeskuindarreko burua, XVI. eta XVII. mendeetan tertzio espainiarrek eta Amerikaren konkistatzaileek erabili zuten morrioia buruan duela. Iragan inperialaren mitifikazioa bultzatu dute azken urteetan neonazionalista espainiarrek.

GERRA KULTURALA FRONTE GUZTIETAN

“Nazioa ordezkatzeko duten sinboloak geldirik geratzen badira edo modu mugatu eta itxian interpretatzen badira, erabilgarri izateari uzten diote masen artean sentimendu nazionala mobilizatzeko eta hautsez betetako erlikia bihurtzen dira. Belaunaldi bakoitzak sinbolo zaharrak birdiseinatu behar ditu eta berriak sortu, su nazionala piztuta mantentzeko”, azaldu du Batallak.

Zahagi berri horietan denetarik dago: Espainiaren historiako gertakariak erreproduzitzen dituzten Augusto Ferrer-Dalmauren margolanak, azken urteetan best-seller bihurtu diren hainbat nobela historiko –sarritan musulmanen aurkako birkonkista eta Flandriako Tertzioak gai fetitxe gisa hartzen dituztenak–, *Masterchef* telebista-saioan gastronomia erabiliz zabaltzen den iruditeria, bideo-jokoaren bidez gertatzen ari den inperialismoaren *gamifikazioa* edo TVEko zen-

Liburuak, telesailak,
bideo-jokoak...
azken hamarkadan
nazionalismo
espainiarrak euskarri
guztietan aurkitu
du bere mezua
hedatzeko modua

bait telesail –Isabel eta *El ministerio del tiempo*–, besteak beste. Eta adierazpen kultural horietako bakoitzaren azterketa xehea eginez, ezkututzen dituzten tranpak agerian geratzen dira.

Adibidez, Ferrer-Dalmauren koa-droetan zer ikusten den eta zer ez den

inoiz ikusiko: sobietarren aurka –eta nazien alde– gerra egitera joandako Dibisio Urdineko soldaduei hainbat margolan eskaini die, ez ordea Parisen liberazioan parte hartu zuten Leclerc Dibisioko soldadu errepublikanoei, adibidez. Nobela historiko espainiar askotan berriz, iragana aitzakia hutsa da gaur egungo egoeraz hitz egiteko. Iberiar Penintsulatik kanporatu zituzten musulmanak gaur egungo migratzaileen ordezkokoak liriateke: “Erlijio musulmana infekzio edo minbizia gisa ulertua; pozo bat, nazioaren odolean sartua, baina organismo sendo batek desaktibatua, bere burua itotzen ez uzteko erabakia hartuta”, azaldu du Batallak, Isabel San Sebastiánen lanak aztertu dituen pasarte batean.

Bideo-jokoaren kasuan, beste zerbaite ere gertatzen da: jokalariek historia berridatzi dezaketela. Batallak aipatu duenez, *Europa Universalis IV* estrategia-jokoan Gaztelako erresumarekin 2.000 ordu inguru jokatu dituen erabiltzaile batek webgune batean esplikatu du, ohar eta pantaila-argazki asko jarritz, nola anexionatu dituen ia Amerika osoa, Afrika, Europa, Asia eta Ozeania. “Galdetu beharko genuke zer inplikazio psikopolitiko dituen kontu honek”, dio egileak. Ez ote du horrelako inperio birtual bat sortu ahal izateak pentsarazten iraganean ere, lider konpetenteagoak eduki izan balitu, Espainiak mundu erdia menpean edukitzen jarrai zezakeela? “Ez ote ditu elikatzen horrek –azaletik eta hutsalki bada ere– atsekabe irredentistaren galdarak eta *eliteen konspirazioa*-ren mitoa, faxismoaren atarikoak izan ohi direnak?”.

Zenbait ekintza bandalikok ere erakusten du nazioa noren aurkako labandena den: 2017ko urriaren 12an Oviedon

Auzozaintza

SARE PUBLIKO-KOMUNITARIOA
RED PÚBLICO-COMUNITARIA

Gero eta isolatuago bizi garen garai honetan, harremanak indartzea funtsezkoa da. Adinekoek hautatu ez duten bakardadearen arazoari aurre egiteko helburuz, zaintza komunitarioaren eredua jarriko dugu martxan Hernanin.

IZAN AUZOZAIN, SARETU ZAITEZ

Info+:

burujabe.hernani.eus / auzozaintza@hernani.eus
747 47 29 21 eta 747 47 29 22



zaintza
hernani burujabe

Zabalduz

Maitelou

(Asturias) gorritz eta horiz pintatu zizuzten LGTB komunitatearen ortzadar kolorekoak ziren banku batzuk; 2016ko abuztuan Berriozarren (Nafarroa) torturaren aurkako mural batek jasan zuen kolore espainiarren eraso; 2021eko otsailean Trebujenako (Andaluzia) indarkeria matxistaren aurkako kartel bat estali zuten Espainiako bandera espraiekin margotuz. Zerrenda luzea osa daiteke antzekoekin, baina interesgarriena sakoneko ideia da: “Nazionalismoak, *heterogeneotasunaren josturak*, haren etsaiak ere josten ditu: nazioaren Iskariote guztiak gauza bera dira funtsean”.

ESKUINEKO ANTIKAPITALISMOA

Joera politiko guztiek bezala, kimu berriak erakusten ari den espainiar nazionalismoak baditu bere autore intelektualak. Horien artean, azpimarratzekoa da Gustavo Bueno (1924-2016) filosofoaren ideiek izan duten *revival*-a: Falangen militatuetik Espainiako Alderdi Komunistaren inguruan orbitatzen pasa zen pentsalari horrek ezkerreko alderdiekin kolaboratzen jarraitu zuen Trantsizioaren ondoren ere. Baina 1990eko hamarkadaren amaieran jarriera kontserbadore, nazionalista eta autoritario geroz eta nabarmenagoak hartu zituen, besteak beste Ibarretxe planaren aurkari sutsu bihurtuta –EAEko lehendakari ohia fusilatzeaz ere hitz egin zuen–.

Zerk esplikatzen du ibilbide politiko hori? Batallaren arabera, Bueno ez zen komunistak izan *stricto sensu*, “mundu mailako kapitalismoa geldiarazi zezakeen edozein bloke inperial posibleren aldekoa” baizik. Eta Sobietar Batasuna desegin zenean, inperio espainiarrean aurkitu zuen proiektu horren subjektua. Horregatik agertzen dira nahas-mahas haren planteamenduetan ezkerreko antikapitalistek ere sinatuko lituzketen gauzak –NATOren eta Europar Batasunaren aurka agertu zen adibidez– eta, aldi berean, betiko eskuinaren usaina dutenak, inperialismoa zuzitzeko estrategietatik hasi eta Eliza Katolikoaren historia agente zibilizatzaile gisa birdefinitzeko saiakeretaraino, abortatzeko eskubidearen kontra eta heriotza-zigorraren alde agertu zela ahaztu gabe.

Buenoren ideia askok *mainstream*-era jauzi egin du azken urteetan, Hego Euskal Herriko edozein liburu-dendatan gaur bertan ere erraz samar aurki daitekeen liburu baten bidez: Maria



Pablo Batalla Cueto
historialari eta idazlea.

ALVARO MINGUITO / LA MAREA

Nazioanlismo
espainiarraren
mesedetan eskuinaren
eta ezkerrearen arteko
mugak lausotzen
saiatzen den
tendentzia bat ere
indarra hartzen ari
da, Gustavo Bueno
filosofoaren ideietan
oinarrituta

Elvira Roca Barearen *Imperiofobia y leyenda negra* (Imperiofobia eta legenda beltza). 2016an argitaratu zenetik fenomeno editorial bihurtu da, 30. berriargitalpenera iritsi da eta arrakasta horren eraginez, gaur egun Espainiaren historiako kapitulu ilunen bat gogora ekartzen duen edonork erraz jasoko du

erantzunen bat sareetan, “hispanofobia” elikatzea leporatzen.

Eta kontua ez da historiaren begirada distortsionatu horretara mugatzen. Ezkerrearen eta eskuinaren arteko bereizketa gainditzeko modua ere bilatzen ari dira Buenoren jarraitzaileak, Batallaren arabera: “*Globalismo*-aren aurkako etengabeko gerra, immigrazioaren aurkako jarrera, feminismoaren eta mugimendu sozial berrien kritika gutxi gorabehera basatia, nostalgia obrerista, moralitate kontserbadorea eta George Soros bezalako handikien figurekin obsesionatuta dagoen konspiranoia, halako pertsonaiak aurkezten dituen izango balira bezala migrazioan, erlijio gabetasunean eta askatasun sexualetan interesatuta dagoen kapitalismo neoliberalak gidatzen duten txotxongilolariak”. Material horiekin eta COVID-19aren pandemiak eragindako ezinegon soziala baliatuz, Europako beste herrialde batzuetan bezala Espainiako Estatuan ere gorpuzten ari da igitaia faszioarekin gurutzatzen duen joera nazional-iraultzailea, zutabegile, iritzi-emaile eta *influencer* sorta batek hauspotuta. Lortuko dute ezkerrearen esparru soziologikoaren zati bat herrestan eramatea? Ez lirateke berri onak Espainiaren aurkari gisa identifikatzen dituzten kolektiboentzat. ●

JOKIN BILDARRATZ

“Segregazioa ez da eskolan sortzen”



Pandemia garaiko hezkuntza protokoloen eraginkortasunaz, umeei ezarritako neurriez eta ikastetxeetako lan kargaz galdetu diogu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuari. Curriculum, Euneiz eta konpetentziak ere izan ditugu hizpide, baita Legebiltzarrean egosten ari den hezkuntza hitzarmena ere. Datorren udazkenean EAerako Hezkuntza Lege berria aurkeztea aurreikusten du Jaurlaritzak eta aurre-pausoa da alderdien arteko adostasuna bilatzen duen hezkuntza hitzarmena. Hitzarmenaren hiru ardatzak mahaigaineratu dizkigu Jokin Bildarratzek: ikasleen segregazioa, euskara eta ikastetxe publiko-pribatu afera.

Hezkuntza langileak kexatu dira gainezka daudela, COVIDari lotutako gestio eta lan burokratiko askorekin. Ikastolen Elkarteak berriki kritikatu du ez dagozkien ardurak hartzen ari direla, pedagogia eta bestelako lehentasunak alboratuz.

Oso egoera zaila bizi dugu, inoiz pen-tsatuko ez genukeena, eta erantzun ona eman zaio hezkuntza mundutik. Baliabi-deak jarri dira horretarako. Ikasturte honetan, iaz baino irakasle gehiago daude bai sare publikoan, bai itunpekoan, eta protokoloa, oro har, ongi funtzionatzen ari dela uste dut. Pasa den abenduan, oporren atarian, asko sufritu genuen ikastetxeetan, 460 bat gela itxi behar izan genituen eta garbi ikusi genuen oporretatik buelta ere ez zela erraza izango, baina egoera samurra ez den arren gela oso gutxi daude itxita, eta hori oso berri ona da. Behin hori esanda, pedagogiari lotuta ez dauden bestelako lan gehiago egiten ari al diren ikastetxeetan? Seguruenik bai, egoera berezi honetan denok ari baikara normalean egokitzen ez zaizkigun lanak egiten eta ahalegin berezia egiten. Irakasle bezala aritua naiz, eta pedagogiaz gain lan asko tokatzen zaigu egitea ikasle bakoitzarekin; bizitzen ari garen momentu honetan pedagogiaz harago arlo emozionala eta beste ere lantzen ariko dira irakasleak. Dena den, niri Ikastolen Elkarteak ez dit diozuna helarazi pertsonalki. Elkarrekin ari gara lanean eta elkarrekin aterako dugu hau aurrera; hezkuntza komunitateko partaide guztiei eskertu behar diegu egiten ari diren lan izugarria eta bikaina.

Arlo emozionala aipatu duzu. Pandemia uzten ari den arrastoa dela-eta, ekainean aurreratu zenuen Osasun sailarekin lantzen ari zinetela ikasle eta irakasleen emozioak gestionatzen laguntzeko modua. Zertan da?

Hainbat ikastaro antolatu dugu eta 800 bat irakasle hartu du parte. Oso ondo ari da funtzionatzen eta martxoan beste hainbat jardunaldi antolatuko dugu tresna gehiago emateko irakasleei, psikologoei, aholkulariei...

Pandemiako sentsazioetako bat da umeak daudela maiz dieran, baita hezkuntza protokoloetan ere: musukoa espazio irekietan eraman beharra ikastetxeetan, burbuilak osatu beharra, orain eskola kiroleko partiduak debekatzea... Beste sektore

eta adin batzuekin konparatuta, ikasleei ezarritako neurriak proportzionalak direla uste duzu?

Elementu oso baldintzatzailea egon da: txertoa. Ikasturte honetan izan dugun protokoloa aurreko ikasturtekoaren oso bertsua izan da; pandemiaren garapenaren baitan lasaitu egin dugu uneren batean, baina 12 urtetik gorako edo beherako geletan egon da alde, alegia txertatuta egon edo ez egon (adibidez, 12 urtetik gorakoek musukoa kendu zezaketan patioan): 12 urtetik gora oso gela gutxi itxi dira abendu bitarte (%3 inguru), eta horrek erakutsi digu txertatuta zeuden adinetan pandemiaren eragina askoz baxuagoa zela. Alegia, kontua ez da diana hurrengan jarri dela, baizik eta bilatu dela defentsa gutxiago zituzten gazteak nola babestu. Ikastetxeetatik kanpo gertatzen dena beste errealitate bat da, baina administrazio bezala gure ardura da ikastetxeen barnean segurtasuna eta ziurtasuna mantentzen saiatzea. Eta neurriak kuestionatu ordez, kontzientzia izan behar dugu zein egoera zaila bizitzen ari garen eta oinarritzko elementu bat mantentzea dela funtsa: aurrez aurreko hezkuntza. Gogoratu irakasle hiru hilabetez etxetik aritu beharrek zer nolako ondorioak izan zituen. Irakasleek eurek esaten didate etxean baino askoz hobeto daudela orain ikastetxean, eta horrek esan nahi du neurriak hartu behar direla kutsadura murrizteko. Ez dira gustuko neurri eta arauak, baina aurrez aurreko bermatzeko hartu beharrekoak dira.

“Pedagogiari lotuta ez dauden bestelako lan gehiago egiten ari al diren ikastetxeetan? Seguruenik bai, egoera berezi honetan denok ari gara normalean egokitzen ez zaizkigun lanak egiten”



Pandemiak ikasleen arteko arrakala areagotu duela ere ikusi dugu. Giza baliabide gehigarrietan, jarri al da arreta berezirik are atzerago geratu diren ikasleen errefortzuetan?

Baliabide pertsonal gehiago jarri direnean, bereziki jarri dira batetik pande-

miari aurre egiteko eta bestetik sorturiko arrakala eta arazoak landu ahal izateko. Irakasleak profesionalak dira eta pandemiarekin edo pandemiarik gabe, beti jarriko dute arreta arazoak dituzten ikasle horiengan.

Nabarmendu da pandemia garai ona zela hainbat gairi heltzeko: ratioak jaisteko, kanpoko espazioak gehiago aprobetxatzeko, teknologian formatzeko... Ohiko hezkuntza-paradigmak aldatzeko aukera galdu da?

Gutziz kontrakoa da nire diagnostikoa. Pandemiak aukera asko erakutsi dizkigu eta teknologia berrietan, esaterako, ikasle guztiei (publiko zein itunpeko ikastetxeetako) ordenagailu bana eman zaie, baita euskarazko materiala ere ordenagailu horiek hornitzeko. Pauso izugarriak eman dira, lehendik bazetozenak, eta pandemiak erakutsi digu guztion artean gauza gehiago egiteko gai garela. Kalitate handiko hezkuntza daukagu eta gehiago hobetzeko aukera daukagu.

Konpetentziaz asko hitz egiten da (pentsatzekoa, ikasten ikastekoa...), baina sentsazioa da sarri bestelako norabidean doazela hezkuntza politikak. Adibide bat: Espainiako LOMLOE legeak filosofiaren eta etikaren kamustea ekarriko duela-eta, filosofia irakasleek nabarmendu dute Jaurilaritzak urteotan ez duela filosofiaren aldeko apusturik egin, horretarako eskumena izan arren. Diskurtsoa eta hezkuntza politika bat al datoz?

Urteak dira konpetentziaz hitz egiten ari garela, baina beti izan du mahai gainean zailtasun bat: ebaluazioa. Nola ebaluatu konpetentziak? Uneotan, LOMLOEren curriculumaren garapenean gaude, Espainiako Gobernuak definitu du jada eta gu hemen irakasle eta eragileekin hurrengo urteetako curriculum definitzen ari gara. Definitu beharra dago ze pertsona mota nahi ditugun, ze ezagutza barnerratu behar dituzten eta elkarbizitzan nola hezikatu ditugun. Inportantea da ikasle bakoitzari pentsatzen erakustea eta tresnak ematea bere ikas-prozesuaren jabe izateko; konpetentziak beti izango dira funtsezko bide horretan.

LOMLOEz eta eskumenez ari garela, Espainiako Gobernuak markatzen duen curriculumean eskua sartzeko %50eko eskumena du Jaurilaritzak.

Nahikoa baliatzen al duzue eskumen hau?

Goitik behera. Sare ezberdinetako 75 bat irakaslerekin talde indartsua osatu da, maiztasun handiarekin biltzen dena, definitzeko hurrengo ikasturtean martxan jarri beharko den curriculuma. Dena den, benetako giltza ikastetxeetako profesionalek dute, egunero-egunero ikasleekin ari direnak eta eraikitzeko prest daudenak, curriculuma dinamikoa izan dadin.

Euneiz unibertsitatea zabaltzea onartu du Legebiltzarrak, aurretik Jaurlaritzak argi berdea emanda, baina Euneizen beharra zalantzan jarri dute EHUKo aurreko eta oraingo errektoreek. Behar al du EAEk diru publikoz finantzatzeko unibertsitate pribatu hau, EHUK berak ematen dituen hainbat ikasgai ematen dituena?

Diru publikoz finantzatua... Non ikusi duzu hori?

Nik dakidala, bai Arabako Foru Aldundiak bai Eusko Jaurlaritzak inbertsioa iragarri zuten...

Eusko Jaurlaritzak? Bilatuidazu hori.

“Ikastetxe guztiek hartu beharreko ikasle zaurgarrien portzentajeak jarri nahi ditugu. Diru publikoa jasotzen duten ikastetxeek zaurgarritasun horiei erantzuteko adina ardura hartu behar lukete”



Ez dut datua eskura, nire akatsa

[Elkarrizketan aurrera egin dugu, eta kazetariak ondoren bilatu du informazioa.]

Berez, Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia dira Euneiz finantzatzeko bakoitzak 480.000 euro jarriko dituztela iragarri dutenak. Jaurlaritzak Araba Sport Capital proiektua Next Generation EU funtsetarako aurkeztu zuen, Arabako Aldundiak aurkeztutako proposamena bideratuz eta proiektuarentzat 64 milioi euro eskatuz, horietatik 12,5 Euneizentzat].

Unibertsitate berri bat irekitzeko Legebiltzarraren legea behar da, eta hori da onartu dena. Orain Jaurlaritzak proiektu hori du mahai gainean, balioztatze-ko martxan jarri nahi dituzten graduak bete beharreko baldintzak betetzen dituztela, baita doktoregoek ere, masterrrek, irakasleen profilek... Hortik aurrera dirulaguntzak jasoko dituen edo ez dituen jasoko, ez dago horrelako ezer, unibertsitatea ez delako oraindik martxan jarri.

Baina zuk nola baloratzen duzu?

Ez dakit proiektu hori zer den. Printzipioz, unibertsitate berri bat ongi dago,



ez dut zeresanik hor, ez baita pribatua den unibertsitate bakarra. Beste unibertsitate pribatuekin egon daitekeen alde da, hori bai, irabazi asmorik gabeko unibertsitatea den edo irabaziak ateratzeko helburua duen.

Honek itxura du dirua irabazteko asmoa izan baduela.

Itxura ez, bere estatutuetan horrela du jarria.

Orduan badago alde...

Noski, horregatik aipatu dizut.

Eskolaldi jarraitua vs zatitua, Nafarroan bizi dagoen eztabaidaren oihartzunak iritsi dira EAera. Zer dio sailburuak?

Legebiltzarrak gai honen inguruko analisia eskatu zigun eta horretan ari gara. Gure iritziz, zaurgarrien diren ikasleentzat justuagoa da eskolaldi zatitua, trinkoa baino, eta ikuspegi pedagogikotik ere egokiagoa iruditzen zaigu. Hala ere, aztertzeko eta eztabaidatzeko prest gaude.

Hezkuntza Lege berria egin aitzin, hezkuntza hitzarmena adostu nahi duzue Legebiltzarrean. Hitzarmenaren bueltan, hainbat gai daude mahai gainean eztabaidagai eta ikasleen segregazioa da horietako bat.

El Correion esan zenuen segregazioa ez dela arazo EAEko hezkuntza sistematan. Eragile eta alderdi askok, baita datuek ere, hain justu diote hori dela dugun arazo larrienetakoa.

Guk esaten duguna da segregazioa ez dela eskolan sortzen. Ikaslea motxila batekin dator eta hezkuntza sistemak egin behar duena da berdintasun eta ekitate ikuspegi batetik landu. Gure hezkuntza sistematan, zaurgarritasun guztiak ikastetxe guztion artean banatu edo landu behar ditugu, ez da posible ikastetxe batean kontzentratzea zaurgarritasun egoera handiena duten ikasleak. Zaurgarritasun egoeran dauden ikasle gehienak dituen ikastetxe hori herri batean izan daiteke publikoa, eta beste herri batean itunpekoa. Nola lortu zaurgarritasuna duten ikasleak hezkuntza sistema osoan, guztion artean ahalik eta modu justuean banatzea? Horretarako lanean ari gara eta hurrengo urteetan hartuko ditugun erabaki guztiak zentzu horretan joango dira.

Zein da segregazio horri aurre egiteko bide nagusia?

Segregazio mota asko dago, baina segregazio sozio-ekonomikoari erantzun nahian ari bagara, ikastetxe guztiak hartu beharreko ikasle zaurgarrien portzentajeak jarri nahi ditugu. Diru publikoa

jasotzen duten ikastetxe guztiak zaurgarritasun horiei erantzuteko adina ardura hartu beharko lukete.

Hizkuntza da beste gai zentral bat. Eragile ugari aspalditik dio hizkuntza ereduak gaintu behar direla eta murgiltze eredu (D eredu) dela ikasleek euskara jakitea bermatu dezakeen bakarra, baina gurasoek duten aukeratzeko askatasuna bermatu behar dela defendatu izan du EAJk. A eta B ereduari eutsiko zaie?

Gaur egun, euskal ereduaren aldeko apustua garbia da gurasoen artean. Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza proiektua behar du, ez baita berdina Tolosan egin daitekeen D eredu eta Barakaldon edo Gasteizen egin daitekeena, ikasleen %60ak ama-hizkuntza euskara duen ikastetxean eta ikasleen %100ak ama-hizkuntza erdara duen ikastetxean. Bakoitzaren egoera sozio-linguistikora egokitzen zaion hizkuntza proiektua gauzatu beharko genuke, eta horretarako ikastetxe eta errealtate bakoitzaren araberako baliabideak eman beharko genizkioke. Irakasleen formazioa ere ezinbestekoa da gai honetan.

“Auzia ez da hizkuntza bat edo bestea, hiru hizkuntzetan aritzeko gaitasuna lortzea baizik”



Testuinguru sozio-linguistikora egokitutako hizkuntza proiektuak... baina D ereduaren barruan?

Ikastetxe gehienek D ereduak aukeratu dute, baina esan dudan moduan Tolosako eta Barakaldoko D ereduak ez dira berdinak izango, ezberdin erantzungo diote beren errealtate sozio-linguistikoa, eta beraz auzi honetan protagonismoa ikastetxe bakoitzak du. Euskararen eztabaidatik alde egin behar dugula uste dut, azken urteetan adostasun zabala dagoelako eta gurasoek ere ikusten dutelako zein den seme-alabentzako biderik egokiena, euskarari dagokionean. Euskararen Legea bera gako inportantea da: legeak dio bigarren hezkuntza bukatu eta gero ikasle guztiak gai izan behar dutela euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko. Hizkuntza aniztasunaren barruan ulertu behar bai-



tira ikastetxeetako hizkuntza proiektuak, ingelesa edota frantsesa ere ikasten dutelako gazteek. Auzia ez da hizkuntza bat edo bestea, hiru hizkuntzetan aritzeko gaitasuna lortzea baizik.

Sare publikoak eskatzen du administrazioak sare publikoari eman behar diola lehentasuna. Hezkuntza Sailak hobesten al du sare bat bestearen gainetik?

Sistema publikoan, ikastetxe publikoak dira hezkuntzaren muina, baina itunpeko ikastetxeek ere paper garrantzitsua jokatzen dute (ikasleen %50 hartzen dute). Bi sareak sendotu behar ditugu, denek osatzen dutelako gure hezkuntza proiektua eta zentzu horretan inportantea delako bi sareak indartsu egotea. Hain justu, lege berria baliatu beharko genuke sareen dinamika gainditzeko, berdin duelako sare bateko edo besteko ikastetxea izan, inporta duena da ikastetxe bakoitzak zein proiektu daukan, etorkizunerako zein bide-orri eraikitzen duen, bermatzen badu baldintza bertsuetan eta doan eskainitako hezkuntza bat.

Sareak gainditzeko behar horretan, bi formula daude mahai gainean: edo itunpekoak publikatzea, edo hainbat eskubide eta betebeharrak betez gero denei %100eko finantzazio publikoa bermatzea.

Ikastetxeak publikatu edo ez publikatu, ez dut uste eztabaida hori uneotan gizartean dagoenik. Gainera, zergatik publikatu ikastetxe bat, baldin badu adibidez hezkuntza proiektu sendo bat, soziala, eta inongo gogorik ezta beharrik ere publikatzeko? Horregatik nioen sare kontzeptuaren gainetik egon behar dugula, kalitatezko hezkuntza proiektua eskaintzea dela helburua, dauden arazoek ikastetxe guztien artean eta baldintza bertsuetan erantzunez.

Ikastetxeen autonomia erabatekoa defendatzen duzu, ebaluazio on bat eginez. Nola fintzen da ebaluazio hori?

Ikastetxe bakoitza da bere buruaren jabe eta berak erabakiko du zertan gastatuko duen dirua, non dituen lehentasunak... eta orain arte bezala ebaluatuko dugu, publiko zein itunpeko, ziurtatzeko ematen zaien dirua erabiltzen dela behar den horretan eta emandako arrazoietan oinarrituta. Eta %99a fin dabil, baina guztiontzat eraginkorragoa da bai gure burua ebaluatzen badugu, bai besteen ebaluazioa jasotzen badugu.

Hezkuntza arloan udalek eskumen gehiago izatea ere aipatu da. Zein rol izan beharko luketela uste duzu?

Eskumen batzuk partekatzen ditugu jada: herri baten giza-kohesioa zaintzea esaterako udalaren eskuduntza da, baina guk lagundu dezakegu horretan. Giza-kohezioaz ari gara eta segregazioaren gaia aipatu dugu oraintxe: zenbat eta orekatuagoa izan kohezio hori, orduan eta hobea izango da herriko giroa, eta horregatik bultzatzen dugu herrian udal batzordeak sor daitezen eta bertan herriko ikastetxe guztiek parte har dezaten, hezkuntzarekin lotura duten hainbat erabaki guztion artean adostu ditzagun.

Matrikulazioari begira baita ere?

Baita ere. Agian herri bakoitzean jarri daiteke matrikulatzeko bulego bat... Segregazioari lotuta lehen esan dugu zaurgarritasun espazioak ikastetxe guztien artean orekatu behar ditugula eta udalak ere parte hartu behar du banaketa eta planifikazio horretan.

“Ikastetxeak publikatu edo ez, ez dut uste eztabaida hori gizartean dagoenik. Gainera, zergatik publikatu ikastetxe bat, baldin badu hezkuntza proiektu sendo bat eta publikatzeko beharrik ez?”



Ikastetxeen ahalduntzea aldarrikatzen duzu. Nola ahalduntzen dira ikastetxeak administratiboki, baliabideak emanez?

Baliabideak emateaz harago, ahalduntzea da indarra ematea, autonomia eta lidergoa, eta horretarako bere buruaren jabe den eta bere buruan sinesten duen taldea behar da. Ezinbestekoa da zuzendaritza talde potenteak izatea, eta beraien aitortza jasoko duen dekretu bat jorratzen ari gara, funtzio berriak eta sari ekonomiko berriak tarteko. Gurasoek ere paper garrantzitsua jokatzen dute. Ikastetxe bakoitzak erantzuten dio errealitate eta ekosistema jakin bati, eta inguruan dauzka eragileak, dauzka hain-

bat administrazio, baina benetan protagonistak ikastetxeak eurak dira. Gure pean 1.222 ikastetxe dauzkagu; ezinezkoa da ikuspegi zentralista batetik guztiei indarra ematea, ikastetxe bakoitzak hartu behar du indarra, autonomiatik.

Hitzarmenari begira, hezkuntza komunitateko eragileen 100 agerraldi entzuten ari zarete Legebiltzarrean. Halere, hainbat ahotsek eskatu dute hitzarmenaren egituraketan bertan parte hartzea, ez izatea eragile politikoen arteko adostasun soila.

Irailetik hona 511 pertsonarekin bildu naiz (guraso elkarteak, ikastetxeetako zuzendariak, sindikatuak, patronal guztietako arduradunak...) eta guztiei, hitzarmenaren oinarriak azaltzeaz gain, eskatu diet ekarpenak egin ditzatela. Dozenaka ekarpen ditut, oso baliagarriak. Horrez gain, inoiz ez bezala, 100 agerraldi daude martxan Legebiltzarrean. Legebiltzarreko alderdiak gizartearen ordezkariak dira, legitimitate guztia dute legeak egiteko, eta hala ere testua egiten hasi aurretik eragile guztiekin hitz egin du Legebiltzarrek, guztien gogoetak jasotzeko. Are gehiago, testu artikulatua egin ondoren ere, eragile guztiekin egongo gara berriro, beraien iritzia eman dezaten. Garbi dago zein diren ardatzak: segregazioa, euskara eta ikastetxe publiko-privatu afera, eta horien eta gainerako gaien inguruko sentsibilitate ahalik eta gehienak bilduz testua osatzea izango da gure zeregina.

Cristina Uriarte sailburu ohiarekin oso urrun zegoen akordiorako aukera Legebiltzarrean. Orain aldiz, kanpotik badirudi hitzarmena egina dagoela, alderdi batzuen artean sintonia handia dagoela. Zer gertatu da Uriarteren garaitik Bildarratzen garaira?

Gertatu da pandemia. Pandemiak erakutsi digu hezkuntzak zein paper joka dezakeen eta alderdi politiko eta eragile sozialekin oso giro eta jarrera ona ikusi dugu, pandemiak erakutsi digulako batera askoz gehiago garelara. Alderdi politiko guztiekin oso harreman ona dut eta baten batek jada esan dit hitzarmenean ez duela parte hartuko, baina ulertzen duela akordioa egon behar duela. Baita orain naiz eta adostasunak lortuko ditugula uste dut, eragileen agerraldietan ere gauza bertsuak entzuten ari garela, gai ardatzen inguruan. Horiei forma ematea izango da gakoa. ●

Iratxoek

Gasteiz okupatu zutenekoa gaztetxearen defentsan

20 urte dira 198 iratxok Gasteizko kaleak hartu zituztela, 2002ko urtarrilaren 25ean. “Metro erdiko izakitxoak, aurpegi zirtolarikoak eta belarri estu-luzeak zut, irribarretsu, kolore biziz jantziak”. PPko alkate Alfonso Alonsok begiz jota zuen Gasteizko gaztetxea, bai ala bai eraitsiko zuela agindu zuen, eta Basoetako Iratxoen Asanbladak espazio autogestionatuaren aldeko kanpainarekin bat egitea erabaki zuen. Ustekabeko bisitak oihartzun izugarria izan zuen hirian, eta gaztetxea zutik mantentzeko ekarpen erabakigarria izan zen.

 ZIGOR OLABARRIA  GASTEIZKO GAZTETXEA

Pistolaz apuntatuta egin zien harrera Ertzaintzak hiriburura heldutako lehen iratxoei –eta beraiekin zeuden gizaki izutuei–. “Ez dut inongo gogorik lehergailu-abisu batengatik eremua prezintatu behar izateko”, azaldu zieten, eta eskaiolazko izakitxoetako bat erditik puskatzera behartu zituzten gazteak, barruan leherkaririk ez zuela ziurtatzeko. Goizaldeko 05:30ak inguru ziren, Iratxo Operazioaren lehenbiziko urratsa Gasteiz inguruko poligonoetan eta enpresa nagusien ateetan iratxo batzuk kokatzea zen, 06:00etako txanda aldaketatik jada zurrumurruek eta ikusmira piztu zitezien. Hasieraren okerrak ez zituen planak geldiarazi, nolnahi ere.

Plazak, saltokietako sarrerak, parkeak, hedabideen inguruneak, zebra-bideak... goizeko lehen ordutik dozenaka iratxo hasi ziren agertzen nonahi –baita PPko Miguel Ángel Echevarría alkateordearen udaletxeko bulegoan ere, garaiko zurrumurruei kasu eginez gero–. Gasteiztarrek harriduraz, irribarrez edo jakin-minez begiratu bazieten,

Poliziak atxilotzeari ekin zion, eszena surrealistikak sortuz. Udaltzainen autoak Andra Mariaren plazaren erdian ateak zabalik, eta udaltzain tropela batera eta bestera lasterka, inguruetako iratxoak atxilo eramaten. Edo, iratxoen lapurreta masiboa ikusirik kalean esertzea erabakitzen duen gaztea, izakitxo ondoan, Ertzaintzaren patruila ondotik igaro, gelditu eta atzera egiten duen arte: “Iratxo hori zurea da?”; “Bai”; “Eraman egingo dugu”; “Ez, barkatu, agian ez naiz ondo azaldu: baietz, iratxoa nirea dela”; “Eraman egingo dugu, eta zuk atera karneta”; “Barkatu? Debekatuta dago iratxo baten ondoan kalean egunkaria irakurtzen egotea ala?”; “Begira gazte, ez etorri niri potroak ukitzera, goiz puta osoa daramat iratxo madarikatuak jasotzen!”. Eguerdarako iratxo gehienak Udaltzaingoaren Agirrelandako komisaria nagusian zeuden preso. Agerraldia isildu nahi izan zuen Poliziak, baina ez zuen lortu.

OIHARTZUN ZABALA

Arratsaldean, Basoetako Iratxoen Asanbladak webgune propio baten bitartez

jakinarazi zuen –garaian bide berri-tzailea– Gasteizera bisita egitea erabaki zuela eta Poliziak kide asko atxilotu zituela. Taberna eta okindegietan gaia bolo-bolo zebilen ordurako. Iluntzean aske jarraitzen zuten iratxoetako gutxi batzuek kontzentrazioa egin zuten Korreos plazan, beren tamainara egokitutako pankartan “atxilotuak” askatzeko aldarrikatuz. Hurrengo egunetan “Iratxo misterioitsuak agertu dira”, “Ipotx inbasoreen misterioa” bezalako lerroburuak agertu zituzten berripaperek, eta hedabideetan zein kaleetan denetariko teoriak entzun ziren: *Amélie* pelikularen jarraitzaile batzuen lana ote zen, Frantziako Estatuan sortutako lorategiatako iratxoen mugimenduaren Gasteizko adarra... Azkenean iratxoen asanbladak berak eman zuen beren etorreraren azalpena otsailaren 5ean, kazetariz lepo zegoen Zuloa liburu-dendaren aretoan, bideo baten bidez:







Iratxoaren mozorroei etekin handia aterazieten propaganda eta komunikazio arloan.



Iratxoak egin eta pintatzeko kale-tailerrak oso arrakastatsuak izan ziren.

“Urrian hasi zen dena (...) udazkeneko ohiko lasaitasuna asaldatua zen. Gasteiz aldetik oihuak zekarzkigun haizeak (...) Gaztetxea, leku bat non lan egiten den garai urrunetan gizakiengandik aldenarazi gintuzten arrazoiak eta jokabideak eraldatzeko –tristura, botere-nahia, autoritarismoa...– Ilunpeko Indarrek mehatxatua zegoen aspaldi (...) Iratxook bat egin dugu Etxe Sorginduarekin, Gasteizko Gaztetxearekin (...) guk, Gaizkiaren kontrako borroka erabakigarri honetan, naturarekin jolasean mendeetan ikasitakoa emango dugu: irudimena, alaitasuna, burugorakeria, bidegabeke-rien aurkako borrokarako grina, aurkari-er barre egitekoa... eta magia pixkatxo bat. Eman zuk zeurea!”.

Orduan jakin zuten gasteiztar denek jada batzuek susmatzen zutena. Bai, gaztetxearen aldeko kanpainaren parte zen ekimena. Hilabeteak ziren kanpaina abian zela, Alfonso Alonso alkateak erai-kina lurrarekin berdintzeko erakusten zuten temakeriaren aurrean.

PP ALKATETZARA, GAZTETXEA ARRISKUAN

1988an okupatutako apezpikutzaren eraikinak husteko edota eraisteko arriskuak bizi izan zituen lehenago ere EAJko José Angel Cuerda alkatearekin. Epelak izan zituzten gaztetxeak eta Cuerdak zenbait unetan, baina 1995ean udalak gaztetxea eta bere kokapena onartu zituen, eta ordutik lasaitasuna zen nagusi. 1999ko ekainean, ordea, PPK irabazi zituen udal-hauteskundeak. Gaztetxean hasieratik piztu

zen kezka gobernu aldaketarekin, eta udal-gobernu berriak arrazoia eman zien 2001eko urtarrilean. PPK Gasteizko Erdi Aroko Hirigunearen Birgaitze Integraturako Plan Berezia (BIPB) aurkeztu zuen, auzoaren turistifikazioa ardatz zuen plana: gaztetxearen “eraistea” aurreikusten zuen besteak beste, “dorre-behatoki” bat eraikitzeko bere orde. Jarraian antolatu ziren salaketa eta mobilizazio ekimen zenbait, baina BIPBa onartzeko epeak luzatu zituzten ondoren, eta tentsioa baretu zen... Edo hori ematen zuen.

2001eko abuztuaren 28an, gaztetxeak 33 urteko historian jasan duen poliziaren eraso bortitzenetakoa pairatu zuen. Ertzaintzak furgoneta-kolpeka


bota zuen sarrerako atetzarra, barruan zeuden hamazazpi gazteak kolpatu, komisiariara eraman eta desobediencia larria eta agintaritzaren aurkako atentatua leporatu zien. Eraso fisikoaren ondotik etorriko zen mediatiko-politiko: TVEko albistegiko bigarren berria izan zen “terrorismoarekin” lotutako hamazazpi atxilotetena; EAEko PPrez bozeramaile Leopoldo Barredak kale-borrokaren eta gaztetxeen arteko “konexioa” ikertzeko eskatu zion Ertzaintzari; “Lokal horiek, gutxienez, kale-borrokaren babesleku dira, ez bada ETA talde terroristarenak”, adierazi zuen PSEko koordinatzaile Rodolfo Aresek. Balio bezate gertakariak eta aipatu erreakzioek garaiaren “tonua”-ren erakusle bezala.

Alonsok egoera baliatu zuen. “Gaztetxeak ez du Alde Zaharraren biziberritzea sustatzen; bisitariak hurbiltzea eta turismoa garatzea oztopatzen du”, adierazi zion *El Correo* egunkariari irailaren 1ean, atxilotetetatik hiru egunera. Jauzi kualitatiboa ematea erabaki zuen jarraian: ahalik eta azkarren eraitsiko zuen Gaztetxea, BIPBaren onarpena horretarako propio aurreratuz eta udaleko gainontzeko alderdien babesik gabe. Hori ziurtatu zuen urriaren 11n, eta mehatxuari erantzun berehalakoa eman, urriaren 20an milaka gasteiztar irten zen kalera gaztetxearen defentsan (3.000 Udaltzaingoaen arabera, 4.000 gaztetxearen esanetan). Gaztetxea zutik mantenduko bazen, ordea, hori baino askoz gehiago beharko zutela pentsatu zuten gazte asanbladako kideek.

Gasteizko gaztetxea 30 urte, 2018

Erreportaje hau egiteko informazio gehiena Gasteizko gaztetxeak bere 30. urteurrena ospatzeko argitaratu zuen liburutik atera dugu.

"KOMUNgrafia" mardula Muinoko Etxearen historia –eta zeharka Gasteizkoa eta Euskal Herriko– ezagutzeko erreminta egokia da.



Atxilotutako kideen askatasuna exijitzeko mobilizazioa egin zuten iratxoek agerraldiaren arratsaldean bertan.



DENBORAK ETA EZTABAIDAK MARKATZEN

“Kontua zen guk geuk markatzea erritmoa”. Orduko *gaztetxera* baten hitzak dira. Ia urtebete zeramaten gazteek unean uneko erantzunak antolatzen, urrats munizipalen eta alkatearen adierazpenen arabera. Hausnartu zuten horrela arituta asanbladako kideen indarrak “erretzen” ari zirela eta, batez ere, ez zutela lortuko Alonsok atzera egitea gaztetxea eraisteko asmoan. Eta hori zuten helburu anbiziotsua. Zer edo zer adatu beharra zegoen:

“Hemendik aurrera, guk markatuko dugu gatazkaren erritmoa (...) Asmoa da pixkana *in crescendo* doan kanpaina bat hastea, eta bere helburua izango da amaiera erabakigarri batera heltzea: gaztetxearekin geratuko gara edo galdu egingo dugu. Bata ala bestea”, idatzi zuten barne dokumentu batean. Irabazteko, bi “ezinbesteko” gako azpimarratu zituzten: “Batetik, ahalik eta lan handiena egin behar da gaztetxearen arazo “hiriko arazo nagusi” bihurtu dadin (...) Bestalde, ez dugu planteatu behar gaztetxearen gaia eraso edo arazo isolatua balitz bezala (...) Herritarren eta erakundeen —bereziki PPren— arteko gatazka bat bezala enfokatu behar dugu, betiere ahaztu gabe erdian gaztetxea dagoela”. Asanblada irekia deitu zuten herri mugimenduetako lagun konplizeekin, apustua azaldu eta berau errealitate bihurtzeko laguntza eskatzeko, eta indarberriturik ekin zioten kanpaina zinez biziari. Urria zen, amaiera “erabakigarria” bost hilabete aurrerago etorriko

zen: erraldoia izan behar zuen martxoaren 23ko manifestazioa. Bitartean, galza bete lan.

KANPAINA

Kaleetan propaganda eta komunikazio lan jarraitua egin zuen gaztetxeak. Gasteiztarrak non bildu —Alde Zaharrean, saltoki handietan, Alavesen partidan—, han agertzen ziren gaztetxeko “mimoak” hitzik gabe Muinoko Etxea zer zen eta zein arriskutan zegoen azaltzen. Unibertsitateko irakasleek inkesta soziologiko bat gidatu eta babestu zuten, auzokideek gaztetxeaz zuten iritzia (oso ona) aztertzeko. Herri mugimenduak lan-esparruka elkartu ziren astebeteko egitarauak osatzeko, hamalau astez segidan gaztetxea bera jardueraz lepo betetzeko. Musika CDa kaleratu zuten, puntako taldeen abesti berriekin. Inauterietako urteroko desfile munizipala birpolitizatu eta milaka gasteiztarrek Txanketeren barku mitikoko karroza ikusi zuten igarotzen, atzetik dozenaka espekulatzaile gorbatadun zituela eraisketa agindua eskuan. Eta abar.

Ohikoekin batera ezohiko babesak lortu zituzten: Gasteizko auzo elkarte guztiena eta hiriko sindikatu guzti-guztiena, PSE salbu oposizioko talde politiko guztiena, eskaut koordinadorarena, Gasteizko seminarioko apaizena, Unax Ugalde edo Almudena Cid gasteiztar famatuenak. Efektu kolpe sonatuak izan ziren: “Gaztetxeari ez zaizkio ideiak bukatu bere aldekoak errekrutatzen eta, horrela, PP-UA udal-gobernuak eraikina eraisteko duen asmoa geldia-

Gorka Urtaran alkate antiokuparen ama eta aita politikoa okupen defentsan

Errekalear, Olarizuko etxe okupatuak, Alde Zaharrekoak... Hautu politikoz zein behar gorri hutsez okupatzen dutenen aurkako bandera harro altxatzen du Gasteizko EAJko alkate Gorka Urtaranek, PPren diskurtsoa (eta bozak) bere eginez. “Lapurrak”, “anti-sistemak”, “aprobetxategiak” eta beste. Horrelakoak ere bota zituen Alonsok 2001ean gaztetxearen aurka. Urtaran Gasteizko alkatetzarako hauteskundeetara lehenbizikoz aurkeztu zenean, 2005ean, ordurako politikatik erretiratu zegoen José Angel Cuedak ezusteko agerraldia egin zuen “umetatik” ezagutzen duen Urtaranen hautagaitza babesteko. “Seme baten parekoa da niretzat”, adierazi du behin baino gehiagotan. Alonsok 1999an hauteskundeak irabazi zituen arte, Trantsizioaz gerotik Cueda izan zen alkate bakarra, 20 urtez. Urte horietan bere lankide eta konplize nagusia María Jesús Agirre izan zen: Urtaranen ama. Hauteskundeak galduta politika instituzionala utzi zuen Cuedak —ez politika, bestek beste Olarizuko bizilagunen alde aritu baita lanean—, eta udaleko EAJren buruzagitza hartu zuen Agirrek. 2001eko abenduan Cueda “alkate-ohiak” prentsaurrekoa eman zuen Alonsok eraitsi nahi zuen gaztetxearen alde, gaztetxearen liburutegian bertan. Hilabete lehenago beste horrenbeste egin zuen toki berean María Jesús Agirrek EAJko udaleko buru bezala, Batasunako, EAko eta Ezker Batuko udaleko ordezkariekin batera. Ez da harritzekoa, jakina baita seme-alabak beti izaten direla gurasoak baino kontserbadoreagoak. Edo, alderantziz ote zen?



razten saiatzeko. Hainbestera, non lokalaren alde agertu den azkena hiriko alkate ohia izan den”, zioen *El Correo*-k gaztetxeko liburutegian bertan 20 urtez alkate izandako José Angel Cuerda, S.A musika taldeko Juan Aceña eta Lourdes Oñederra Euskadi literatura saria batu zituen prentsaurrekoaren berri emateko.

Horren guztiaren erdian, Alonso ordua arte harro eta mehatxuzalea atzera egiten hasi zen –indar korrelazioa aldatzen ari zela ikusita, gaztetxeko kideen ustez-. PSEk proposatuta eraisketa data-muga zehatzik gabe “izoztea” onartu zuen lehenik, eta adierazpen su-eragileak egiteari utzi zion ondoren. Gazte-xean pentsatu zuten hori zela, hain zuzen ere, ez lasaitzeko unea, baizik eta gasteiztarrei erronka publikoa botatzeko: “Gaztetxeak aurea hartu eta manifestazioa deitu du martxoaren 23rako”, izan zen *Berria*-ren lerrobua urtarriaren 14ko prentsaurrekoa jasotzean: “(...) ‘Fase erabakigarri batera’ heldzea eragingo dute, ‘gaztetxeak jarraituko duela bermatzeko’”. Gasteiztarrei dei egin zieten gaztetxearen defentsan aktiboki inplikatzeko, eta horretarako bi-deak sortzeko konpromisoa hartu zuten. Hamar egunera gasteiztarrek ez, iratxoak izan ziren gaztetxearen deiari erantzuten lehenak.

IRATXOEN BISITAREN UHIN HEDAKORRAK

Bisita labor baten ideiarekin heldu ziren Gasteizera iratxoak, baina hain ondo hartu zituzten gasteiztarrek, egonaldia luzatu eta luzatu beste aukerarik ez zutela izan. Eskaiolazko metro erdiko artelanak egin eta margotzeko prozesua (ordu asko eskatzen zituena) areto itxietatik atera zuten, kalean iratxo-tailerrak antolatu eta ume zein helduek kanpainarako zein norbere etxerako iratxoak egin zituzten; tabernari eta dendariak iratxoak eskatzen zituzten beren barra eta erakusleioetan kokatzeko; kartel propioa atera zuten iratxo baten irudiarekin; mozorro zainduak egin zituzten eta giza-tamainako iratxoek kaleetan propaganda banatzeari ekin zioten –lan zaila, berekin argazkiak ateratzea eskatzen baizieten gasteiztarrek-. Are gehiago: 2005ean, gaztetxea berriro ere hil ala biziko arriskuan zegoela, bigarren bisita masiboa egin zioten basoetako iratxoek Gasteizi. Aldaketa txiki batekin: 2001ean irribarretsu bazeuden, 2005ean bekozko haserretu



Kanpaina amaierako manifestazio erraldoiak lasaitasun garai bat ziurtatu zion gaztetxeari.

antzekoarekin heldu ziren, “nahikoa da gaztetxea aldiro mehatxatzeaz” adieraziz bezala. 2005 esan dugu, baina 2002an gaude, gaztetxearen etorkizuna zirt ala zart erabaki behar duen manifestazioaren atarian.

*Bisita labor baten
ideiarekin heldu ziren
Gasteizera iratxoak,
baina hain ondo hartu
zituzten gasteiztarrek,
egonaldia luzatu eta
luzatu beste aukerarik
ez zutela izan*

MANIFESTAZIO ERRALDOIA

Hiriko 91 mugimendu herritarrek deitu zuten *Gaztetxearen alde, aniztasunaren alde. Okupemos la calle* leloa zuen manifestazioa. Deialdia babestu zuten 200 gasteiztar ezagun baino gehiagok, hiriko sindikatu denek eta Batasuna, EAJ, EA, Ezker Batua, PCE eta Zutik alderdiek. Hilabetetako lanaren emaitza ikusaraziko zuen manifestazioak, eta emaitzak erabakiko zuen gaztetxearen biziraupena. Sentsazioak onak ziren... Baina, badaezpada, bi komunikatu zituzten prest

gaztetxeko kideek: bildutako jende kopuruaren arabera erabakiko zuten zein irakurri. Gasteiztarren –eta euskal herritarren– uholde batek okupatu zituen Gasteizko kaleak jai eta aldarrikapen giroan (7.000 *Correo*-ren arabera, 10.000 *Gara*-ren esanetan). Ez zuten zalantzarik izan irakurri beharreko komunikatuaz: “*Alikate* jaun txit goren hori: Kontziente gara aurrez baimena eskatu gabe zuri zuzentzea probokazio hutsa dela (...). Baina, dena den, damurik ez dugula eta berriro ere egingo dugula zin egin arren, mesedez, behingoan, entzuiguzu (...) Gaztetxearena ez da kasu bakarra. Autoritarismo garaietan bizi gara. Beste garai batzuetan lortutako askatasunak galtzen ari gara (...) Baina gaur gaztetxea da. Manifestaldiak gaztetxeari buruzko iritziaren isla izan beharko lukeela esaten ibili gara. Hiriak argi agertu duela uste dugu. Beraz, ez dugu bukatuko alkaideari orain zer egin behar dugun galdezka, baizik berak zer egin behar duen esanez. Hiriak hitz egin du. *Alikate* jaun txit goren, bi puntu: utz-gaitzazubakean!!!”.

Beren basoetara bueltatu ziren iratxoak, manifestazio osteko parrandan dena eman ondoren eta gaztetxeak irabazitako lasaitasun garai berrian bere aletxo jarri izanarekin pozarren. Alonsok atzera egin baitzuen, egin zuenez. Etorriko ziren bai, mehatxu, larritasun, eta abentura berriak aurrerago: baina hori, irakurle maite, beste istorio bat da. *Alonso bazan ala ez bazan, sar dadila betiko kalabazan, eta irten daitezela iratxoak gaztetxeko plazan.* ●



MINONDOTARREN GUTUNAK

Salbuespen bat euskararen historian?

Euskara ahozko hizkuntzatzat irudikatu izan da iraganean gehienetan, apenas idatzizko presentziarik izandakoa, eta izatekotan, testu erlijiosotan. Sarritan horrela izango zen, legeak eta inposizioak medio, baina bestelakorik ere erakusten duten frogak badaude, Euskaltzaindiak eta Nafarroa-

ko Gobernuak aurkeztu berri dutena kasu: XVIII. mende amaiera eta XIX. hasiera arteko 300 gutun baino gehiago aurkitu dituzte Goizuetan, merkataritzaren eta burdinolen ingurukoak. Gutun horiek bildu eta argitaratu dituzten Patxi Salaberri Zaratigirekin eta Juan Jose Zubirirekin izan gara.

Goizuetako etxe batean agertu dira gutunak, arropa eta kon-tabilitateko paper zaharren artean, eta bi liburukitan jaso dituzte Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak: batean gutunak daude bilduta, eta bestean horien hizkuntza azterketa. *Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807* izenpean, José Ramón Minondo Oiartzungo Olaberria burdinolako arduradunak Goizuetako Artikutzako Goitzarin burdinolan bizi zen Juan Bautista Minondo olajaunari bidalitako eskutitzek osatzen dute bilduma, eta eguneroko jardunean erabilitako materialez edo diru kontuez dira gehienak. Oiartzun eta Goizuetako eskutitzak jaso dituzte argitalpenean, baina azaldu dutenez Ipar Euskal Herriko beste zenbait burdinolarekin ere izan zuten trukea: “Ainhoako burdinolarekin, Donibane Lohizunekoarekin, Ziburukoarekin eta beste zenbaitekin harreman estuak izan zituzten –dio Patxi Salaberri Zaraitegi euskaltzain eta liburuaeren egileetako batek-. Eta polita da ikustea asko eta asko euskaraz zirela”.

Gutunak “salbuespen” bat dira haiek argitaratzeko lanean aritu direnen arbera, bai euskarazkoak direlako, bai gaiagatik: “Industriaren eta burdinolen inguruko hiztegi aberatsa agertzen da, eta euskaraz oso gutxi landu izan da hori. Alde horretatik, gutunak oso garrantzitsuak dira, hutsune bat betetzen dutelako”, azaldu du Salaberri. Duten garrantzia ulertzeko, baina, ezinbestekoa da historiako zein unetan idatzi ziren jabetzea.

HISTORIA BERE KONTRA

Euskararentzako garai nahasiak izan ziren XVIII. mende amaiera eta XIX. hasierako horiek, ohi baino zerbait gehixeago. Alde batetik, debeku esplizituak zeuden euskaraz idazteko. Hala dio Salaberri: “Andres Urrutia euskaltzainburuak aurkezpenean aipatu zuen urte horietan Espainiako Gobernuak dekretu bat atera zuela, debekatuz merkataritza harremanetan espainola ez zen beste hizkuntza bat erabiltzea. Hauek ez dira liburua, noski, gutunak dira, pertsonalak eta transzendentzia publikorik ez zutenak. Baina horrek frogatzen du euskaldun hutsak zirela, eta idazten jakinez gero horrela egiten zutela”.

Bestetik, Frantziako Iraultza jazo berrian, bere eragina ukaezina da. “Konbentzioaren Gerra iraultza horren

ondorio da, eta geroko txikizio guztiek Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herria banandu zituzten. Frantziako armadak Hegoaldeko herriak erre zituen, ez Iparraldekoak; horrek lagundu zuen ezartzen zein zen frantziarra eta zein espainola. Denok euskaldunak bai, baina banatuta”, dio euskaltzainak.

GUTXI BATZUEN ESKU

Mugak muga, huskeria irudi lezake euskaraz idatzitako gutun sorta bati horrelako garrantzia aitortzea, baina testuinguruaz azpimarratu dute ikerleek. Hasteko, idazten jakitea bera: “Gehienak ez ziren eskolara joaten, analfabetoen kopurua nahiko handia zen”, dio Salaberri. Izan ere, idazten jakitea dirudunen edo elizgizonen kontua zen garai haietan: “Zeinek ikasten zuten irakurtzen eta idazten? Zalantzarik gabe dirua zutenek, klase altukoek. Beste guztiek lan egin behar zuten”, azaldu du Juan Jose Zubiri euskaltzain eta liburuaeren egileetako bat denak, Patxi eta Iker Salaberriekin batera. Gainera, idazten zekiten horiek gehienetan ez zekiten euskaraz idazten: “Eskoletan gaztelaniaz, frantsesez edo latinez ikasten zuten, euskaraz behintzat ez, erabat debekatuta baitzegoen”.

Euskaraz hitz egiten zutenek beren hizkuntzan idatzi nahi bazuten, beste oztopo batekin ere egiten zuten topo: euskaraz idazteko araurik eza. Gaztelaniazko edo frantsesezko formak eta arauak bazekizkiten, eskolan hizkuntza

horietan ikasten baitzuten, baina euskaraz ez zegoen horrelakorik: “Orduan ez zegoen Euskaltzaindiarik, ez idazteko forma baturik. Hori dela eta, bakoitza moldatzen zen ahal zuen bezala”, dio Zubirik. Hori aztertu dute gutunetan, eta ikusi dute nolako metodoak erabiltzen zituzten euskaraz idazteko: “José Ramón Minondok nahiko ongi idazten du, modu sistematikoan, eta badu bere sistema ‘tz’-k, ‘ts’-ak eta ‘tt’-ak egiteko”, azaldu du ikerlariak.

Horiek, garai horretako euskarazko edozein testurekin kontuan hartu beharrekoak. Baina kasu honetan, merkataritza kontuak lantzen zituztenez, minondotarrak aparteko hizkuntz-baliabideak ere behar zituzten Zubiriren aburuz. Esaterako kontuak egiteko –hori ere eskolan gazteleraz ikasten baitzuten–, eta gutunetan aurkitu dute horren zantzurik. “Euskaraz idazterakoan, zenbakiak edo kopuruak adierazteko gaztelerara pasatzen dira etengabe. Baina hori gaur egun ere normala da euskaldunon artean”, argudiatu du Salaberri.

Galbahe horiek guztiak pasatu behar izan dituzte gutunok euskaraz idatzi ahal izateko, eta testuon gaia ere bada beste bat: merkataritzari buruz euskaraz aritzeak altxor txiki bat bihurtzen ditu eskuizkribuok. Zera dio Zubirik: “Apezek idazten zekiten, baita dirudunek ere, baina azken hauek kontu erlijiosoen jardun beharrean negozioak egiten zituzten. Eta alde horretatik, Mi-



Goizuetako zubi handia. Herri hartako Paskoltzenea etxean azaldu dira Minondo familiako olajaunek bidalitako euskarazko gutunak.



EUSKALTZAINDIA



Gutunek jasotzen duten hiztegi aberatsa nabarmendu dute euskalariak. Eskuinean, liburuaren aurkezpenean Juan Jose Zubiri, Patxi Salaberri eta Iker Salaberri egileak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Mikel Arregi Euskarabidea Institutuko zuzendariak lagunduta, Iruñean.

nondoren gutunak badira salbuespena, euskaraz landu zuten gaigatik”.

Salbuespen hitza etengabe dute ahotan elkarrizketatuek, uste baitute aurkikuntzak euskararen ezkutuko historian argi txiki bat ekarriko duela. Beste aspektu bat ere azpimarratu dute testuen berezitasuna nabarmentzeko: beren kopurua eta iraupena. Ez dira arlo erlijiosotik kanpo aurkitutako euskarazko lehen testuak: “Ekaitz Santaziliak eta Mikel Tabernak argitaratu zuten Berako Udaletxean aurkitutako testu administratibo bat. Goizuetan ere azaldu ziren XIX. mendeko udal ordenantzak... Horrelako kontuak badira”, dio Salaberrik. Baina horiek testu laburrak edo bakanak direla dio, eta Minondoren kasuan ez: “Hemen 318 testu daude, zenbaitetan dena euskaraz idatzita, hori ez da batere ohikoa. Alde batetik, burdinolen mundukoa izatea da salbuespena, eta bestetik, horrenbeste izatea”.

EUSKARA DEMOKRATIKOA

Ez ziren euskara liburuetan plazaratzeko garai errazak, idazketa apur batzuei mugatutako pribilegioa baitzen. Baina hizkuntza herriarena den heinean, demokratikoa da. Hala, gutun horietatik abiatuta ondoriozta liteke euskara asko erabiltzen zela. Bere egileek beste hizkuntza batean ikasi zuten eskolan, baina ama hizkuntzan hobeto moldatzen zi-

ren: “Euskaraz egiten zuten, noski, gaur egun egiten dugu, duela berrehun urte nola ez zuten egiten? Euskaldun peto-petoak ziren”, dio Salaberrik. Berarekin bat dator Zubiri: “Guk liburuan ez dugu azterketa soziolinguistikorik egin, baina pentsatzekoa da harreman gehienak euskaraz zirela garai horretan”.

“Salbuespen” hitza erabiltzen dute etengabe ikerlariak, eta uste dute aurkikuntza honek euskararen ezkutuko historiari argi txiki bat ekarriko diola

Susmo hutsa dirudi, baina bere iritzia defendatu du Salaberrik: “Ez dago jakiterik garai horretan euskararen erabilera nolakoa zen. Badakigu Iparraldean aldaketa Lehen Mundu Gerrarekin batera gertatu zela; Iparraldeko euskaldunek gerra- frontera joan behar

izan zuten eta garai hartan indartu zen frantses sentimendua eta hizkuntza bera. Nahiz eta euskaldun hutsak izan frantses sentitzen ziren, alemanen kontra ari zirelako. Hori izan zen pizgarri handi bat, nire ustez, Iparraldearen frantsesestean”. Baina hori gutunak idatzi eta ehun urtera gertatu zen. Aurretik, euskara nagusi zela dio, Iparraldean zein Hegoaldean, baita Minondo familiako kideak bizi ziren eremuan ere (Errenteria, Oiartzun, Irun...): “Gaur egun erraldoiak izan litezke herri horiek, baina 1800. urte inguruan txikiagoak ziren eta harremanak euskaraz egiten zirela argi dago”.

Herriarren ahotan eguneroko hizkuntza zen euskara, eta mugaren alde bateko zein bestekoak “batzeko” balio zuen, baita itsasoz ere. Salaberriren hitzetan, sarritan mugan zeuden soldaduek merkantziak geldiarazten zituzten, eta Goizueta eta inguruetako olajaunen “ihesbide bat zen materiala Urumean barrena garraiatu eta itsasoz ateratzea”. Harreman horietako asko euskaraz zirela dio euskaltzainak, eta merkatal-eragiketa hutsa zena euskaldunen batasunerako tresna bilakatzen zela: “Euskal Herriko Iparraldea eta Hegoaldea lotuta ageri dira nolabait. Politika da ikustea erlazio asko euskaraz zirela, hizkuntzak beti laguntzen zuen horretan”. ●

Zuhaitz genealogikorik zaharrena... oraingoz



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Cotswold-Severn eskualdea (egungo Ingalaterra), duela 5.700 urte. Hazleton Northeko tumulu luzean 35 gizabanako ehortzi zituzten, eta horietatik 27 familia berekoak zirela ondorioztatu dute, arrastoen DNA aztertuta. Familia hura Neolitoko Iraultza Britainia Handira iritsi eta handik gutxira sortu zen, hau da, uharteetara nekazaritza, abeltzaintza eta, beraz, bizimodu sedentarioa iritsi eta mende ingurura.

Hazleton North aztarnategia labore lurretan dagoenez, nekazal jarduna arrastoak suntsitzen ari zen eta, horregatik, 1979-1980 urteetako indusketa kanpainetan arkeologoek hezur guztiak jaso, dokumentatu eta gorde zituzten, aurrerago ikertu zituzten. 40 urte geroago, Newcastleko Unibertsitateko Chris Fowler buru duen ikerlari taldeak heldu dio lan horri.

Harvardeko unibertsitateko kideek arrastoak prozesatu eta hezurren hautsetatik sekuentzia genetikoak lortu zituzten. Sekuentzia horiek banan-banan aztertu eta senidetasuna zehaztea EHUko Iñigo Olalde genetistaren lana izan da. Hala, bost belaunaldiko zuhaitza osatu dute, inoizko zuhaitz genealogiko zaharrena. Zuhaitzaren buruan gizon bat dago; lau emakumerekin izan zituen seme-alabak; horiek ere seme-alabak izan zituzten... eta, horrela, bost belaualdiak osatu arte.

Zuhaitza osatuta, Olalde eta gainerako taldekideek berau interpretatzeari



NEWCASTLEKO UNIBERTSITATEA

Hazleton Northeko tumuluan ehortzitako gizabanakoekin osatu dute orain arteko zuhaitz genealogiko zaharrena.

ekin zioten. eta ondorio garbi bat atera zuten: lotura patrilinealaren edo aitaren ildoaren garrantzia. Aztertutako 35 indibiduoetatik 26 gizonetakoak dira eta guztiak jatorrizko gizonaren semeak, ilobak, bilobak, birbilobak... "Oso baldintza zorrotza zen", Olalderen hitzetan.

Baina horrek ez du esan nahi emakumezkoek garrantzirik ez zutenik. Alaba heldurik ez dago tumuluan ehortzita, ugalketa adinera iristean, beste komunitate batzuetara bidaltzen baitzituzten han ugaltzera. Emakumeen exogamia deritzo horri eta, orain arte horren susmoak bazeuden ere, Hazleton Northekoa da "lehen froga zuzena". Horrek endoga-

miaren ondorio kaltegarriak saihestea eragiten zuen. Gainera, komunitate berri horietara iritsitako emakumeak ere kontuan hartzen ziren ehorketetan. Zuhaitzaren jatorrizko lau emakume eta haien ondorengoak haiekiko senidetasunaren arabera ehortzi zituzten. "Emakumeak garrantzitsuak ziren komunitate horien memorian".

Iñigo Olalderen ustez zuhaitz genealogiko zaharagoak laster azaldu daitezke, antzeko ikerlan gehiago egiten ari baitira. Marka haustez gain, iraganeko fenomeno eta joera sozialak interpretatzeko material gehiago ekarriko du horrek. ●



UK NATIONAL ARMY MUSEUM

Gudurako zaldi txikiak nahiago

Iraganeko gudu zelaietan zaldi handi eta boteretsuak irudikatu ohi dituzte koadro eta filmetan. Baina Exeterreko unibertsitateko ikerlariak ondorioztatu dute Ingalaterran gerran erabili ohi zituzten zaldiak egungo poneyen tamainakoak zirela. IV. eta XVII. mendeen arteko 2.000 zaldiren arrastoak aztertu dituzte, eta guztietan handie-

nak, normandiar garaikoa (XI. eta XII. mendea) metro eta erdiko altuera besterik ez zeukan. Ikerlarien ustez, propio bilatutako selekzioaren ondorioa izan daiteke, zaldi altu eta azkarrek aurrez aurreko borrokan abantaila ematen duten arren, distantzia handiak ibiltzeko gai ziren zaldi trinko eta erresistenteagoak hobesten zituztelako. ●

Gorriz markatutakoak belztuz

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Irudipena dut azken urteetan jaiegun arrotzetan lan egitearen aldarrikapenak indarra galdu duela. "Gora Guardia Zibila!" oihu ironikoren bat ere aditu dut inoiz urriaren 12an jai duenaren ahotik. Sekula etxea asaltatu ez dioten seinale. ARGIAN egutegi propioaren arabera lan egiten ahalegintzen dira, burujabetza ariketa bat, eta diote, "kazetaritza eraldatzailea egiten badugu garrantzitsuak iruditzen zaizkigun baloreekiko koherentziaz jokatu behar dugu egunerokoan ere". 2022ko egutegia osatu dute urte hasieran.

Badira urte batzuk hainbat gauza adostuta daudela jaiegunen inguruan. Espainiar egutegian "Hispanitatearen Eguna" deitzen dioten eguna, aipatu berri dudan urriaren 12a, ARGIAN ez da jaieguna. Normaltasunez egiten da lan egun horretan eta webgunea, adibidez, egunerokotasunean bezalaxe elikatzen da. "Arrotza zaigun jaieguna da, Amerikako jatorrizko herrien genozidioaren hasiera eta kolonizazioa ospatzen delako", azaldu dute. Kasu honetan jaiegun hori norberak aukeratzen duen beste egun batean hartzen da. Eta berdin abenduaren 6ko jaiegunarekin. Espainiako Konstituzioaren eguna. Arrotza guretzat.

Honen orde, abenduaren 3a egiten da jai ARGIAN, Euskararen Egunean.

2022AN ZEIN JAIEGUN TOKATZEN DIRA?

Aurten "Elkanoren Eguna" izendatu dute irailaren 6a eta ARGIAN lanez izango dela erabaki da. "Ikusi dugu egun horrek eta ospakizun horien atzean dauden interesek ez gaituztela ordezkatzeko", adierazi dute. Ez da ahaztu behar lurraldetan ikuspegitik Euskal Herriaren zati bakar baterako, EAERako, dela jaieguna; eta horrek ere ez du laguntzen. Aurretik aipatu bi jaiegun arrotzekin ere gauza bera gertatzen da.


Dena den, badira egun batzuk, batez ere kutsu erlijiosoa dutenak edo Eliza Katolikoaren ospakizunei lotuak, ARGIAN ere jai egiten direnak (Eguberriak, Aste Santua...). Azken kasu horietan kontziliazioari begira egiten da jai halabarharrez. Badago oraindik makina bat pauso egutegi burujabe bat lortzeko bidean emateko.

Jai eta opor egunak malgutasunez eta konfiantzaz kudeatzen dira ARGIAN, baina inertzia batzuetatik alden du eta arduraz jokatu nahian. Etor-kizuneko bidea ere irizpide horiek kontutan hartuta egitea da asmoa. ●

Txillardegiren kronikak

Urtarrilaren 14an aurkeztu zuten Donostiako San Telmo museoan *Kronikak* (Susa, 2022) liburua, Susa Argitaletxearen, Euskal Idazleen Elkartearen eta ARGIAren laguntzaz. Edizioa prestatu duen Koldo Izagirreraren eta Juan Luis Zabalaren hitzaurrea dakar liburua.

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-k prentsan argitaratutako kronikak biltzen ditu, tartean ARGIAkoak, eta batez ere *Zeruko Argia*-n publikatu zirenak 1968. urtetik aurrera. Idazle, euskaltzale eta militante donostiarraren alderdi bidaiaria aurkituko du irakurleak kronika horietan, Izagirrek eta Zabalak "turista aktibo eta kritiko" gisa aurkeztua. Brusela, Norvegia, Idaho eta beste hainbat tokitako kontuen berri eman zuen Txillardegik orriotan, etxerako baliagarriak iruditzen zitzaizkion kezkek eta ideiak jasoz.



Euskara eta kazetaritza ikastaroa

Kazetaritzako testuetan euskarazko komunikazio estrategiak nola landu aztertu zuten ARGIAko kazetariak urtarrilaren 14an Hernanin, Ametzagaiña taldeko Adur informatika kooperatibaren egoitzan. Irene Arrarats *Berria*-ko euskara arduradunak gidatu zuen saioa. "Euskararen egoera soziolinguistikoagatik simulatu nahi izaten dugu beste kazetari batzuen komunikatzeko arazo berak ditugula, baina euskal kazetarien kasuan beste arazo eta erronka batzuk gehitu behar dizkiegu aurreko horiei", esan zuen.



EGUR ERRAUTSAREN GAITASUNAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Beretzeko edota janaria prestatzeko egurra erabiltzen al duzu? Orduan aberatsa zara. Egur errautsa lehen-gai bikaina da makina bat gauzatarako. Eskuera ditugun gaien erabileraz jabetzea gero eta beharrezkoagoa izango zaigula pentsatzen dudan horietakoa naiz, ingurumenagatik, baita bizi dugun eragindako mendekotasunetik askatzeko ere.

Gure etxea ez da baserri izugarri horietakoa, baina kale etxe baten aldean handia. Urritik apirilera arteko sualdia izaten du gure ekonomikak, janaria bezala etxea ere beretzeko. Eta hogeit bat estereo edo metro kubo egur erretzen du. Egurra norteko haritz (*Quercus rubra*) edota pago (*Fagus sylvatica*) adakia izan ohi da. Mota horretako egur estereo batek sei-zazpi bat litro errauts ematen du. 130 bat litro errauts su sasoi-ero. Errauts mordo, eta erabileraren eman behar.

Goazen sukaldara. Egur errautsa orantza gisa erabili izan da, gailera eta antzekoen altxagarri. Ezkurrak jan nahi badituzu, aurrez taninoa erauzi behar zaie, eta errautsak lan hori errazten du. Likenari hagina sartu nahi badiotzu, errauts uretan beratzea komeni da, Islandian egiten duten eran. Garbitasunerako laguntzaile ederra da. Harrikoa egiterakoan koipe arrastoak kenduko dituen xaboi kozkorra egiten da errautsarekin. Berarekin lixiba ere egiten da gobada egiteko; baita, iragazi eta uretan nahastuta, orbanak kentzeko ere. Errauts hutsa sukalde bazterretan jarrita ez omen da labezomorrorik hurbiltzen. Arin-arin errautseztatutako arropa ez omen du sitsak jotzen. Animalion arkakusoak ere berdin. Usainak eta hezetasuna bereganatzen ditu, hozkailuan, gela heze batean eta abar; jarri ontzi batean errautsa, hobe ikatz puxkak baditu.



Botikinaren inguruan, azalean emanda zauriak sendatzen laguntzen du, anti-septikoa omen. Garai batean tatuaje gisara azalpean sartzen omen zuten egur errautsa. Hala baieztatu dute Suitzako Alpeetan aurkitutako duela 3.300 urte bizi zen Ötziren gorputzean; agi danean zauriak eta lesioak antzematzen zaizkion tokietan ditu tatuaje bereziok.

Etxe bueltan elurra urtzeko ona da, baina kontuz gero, oinetakoetan ez eraman etxe barrura. Gure ekonomikak suaren parean beirazko atea du: hura garbitzeko ur pixka batekin egindako errauts oreka ezin hobea da. Antzera garbitzen omen da zilarra ere; horretan ni ez naiz saiatu.

Horiek denak egin eta oraindik sasoi honetako egur errautsaren laurdena ere ez dut baliatu... ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo, jakin nahi nuke ea kobrezko hariak erabiltzen duzun zuhaitzetan.

✍ **Jaione Garmendia**

Erdi Aroan pentsatzen zuten metalezko hariak eta iltzeak zuhaitzei enborrean sartuz gero ikaragarriko indarra eta kemena ematen zietela. Burdinezkoak, kobrezkoak, baita zilarrezkoak ere jarri izan zituzten. Lore gehiago, fruitu gehiago, gaitz gutxiago eta abar izango zutelakoan. Gero ere jarraitu izan da jarduer horrekin. Alfer-alferrik ordea. Soilik zauriak egiten zaizkio landareari, eta zauri horietatik gaitzak eta abar sartzen dira. Horrek landarea ahultzen du, inausketak bezalaxe eta horrek eragiten du lore eta fruitu gehiago ematea, baina epe motzeko eragina da hori. Askoz lehenago hilko baita.

Kobre hariarena mahatsondoetan eta tomateetan erabili izan da, batez ere. Gorrinari egiten dio aurre kobreak eta landare horiek bereziki sufritzen dute gorrin gaitzak sortzen dituzten ondoen eraso. Batzuetan alambre-haria enborrean alderik alde sartzen zaio, tomateari adibidez, eta beste batzuetan buelta eta bira enborren bueltan jartzen zaio. Ustez landarea gaitz horietatik babestuko da hari horretatik hartuko duen kobrea medio. Maiz egin izan da saio hori, baina ez dago emaitza egokirik ematen duen arrastorik. Beraz, nik ez nuke sistema hori erabiliko.

Hobe duzu kobrea bere forma ohikoetan erabili. Beti ere kontutan izanda, kobrea neurri batean toxikoa dela. Hau da, ahal baduzu kobrea erabili aurretik beste tratamendu batzuekin saioa egin: asun edo azeri-buztan mindarekin eta abar. ●

LURRE HURRE

MIGRATZAILEAK NEKAZARITZAN TREBATZEKO PROIEKTUA BERMEON



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Bermeon jaiotako eta bertara etorritako herritarren artean hilean behin egiten zuten tertulia dago Lurre Hurre proiektuaren oinarrian. Elkar ezagutu zuen herritar talde horren harremanetik abiatuta, eta konfinamendu garaian migratzaile askok bizi zuten egoeraz jabetuta, egitasmo berri bat martxan jartzea bururatu zitzairen. “Hainbat eta hainbat migrante bizi zuten egoera ikusita, paper kontuak legezatu arte harrera on bat egiteko eta hori nolabait lehen sektorearekin uztartzeko ideia sortu zitzaigun”, azaldu du Josu Ojinaga Anasagasti kideak. Etxeko itxialdian sortu zitzairen asmoari neurriak malgutzen hasi bezain pronto ekin zioten, eta lantzeko lur bila hasi ziren herrian.

PARTAIDETZA ETA LEHEN SEKTOREA

Arrantzaren mundutik iritsitakoak dira Bermeo inguruan bizi diren migratzaile gehienak, eta aurretik nekazaritzarekin eta lehen sektorearekin izandako harremanaren ondorioz, proiektura batu edo ez zalantza egin zuen askok hasieran. “Migratzaile askok nekazaritza pobreziarekin lotzen du, eta kontraesan handi bat da euren handik hona horretatik ihesi etorri eta hemen berriz horrekin topo egitea”, Ojinagaren hitzetan. Bultzatzaileen ustez, ordea, nekazaritzan trebatu ahal izatea aukera ederra da haientzat ere. “Migratzaileen artean, askok ez du ikasketarik, eta zaila zaie lana topatzea. Horregatik iruditu zitzaigun bide egokia izan zitekeela nekazaritzarena”.

Honezkero urte eta erdi inguru daroma martxan proiektuak, eta hamaika bat migratzaile pasatu dira bertatik. Lurre Hurrek etxea eskaintzen die nekazari berriei, eta baratze tekniken inguruko formazioa jasotzen dute. “Goiz osoko formazio praktikoa izaten dute egunero eta teknika diferentek lantzen dituzte”. Nekazaritza ekologikoan dihardute, eta Bermeoko Udalaren eta Jaurlaritzako migrazio ordezkaritzaren partetik jasotako babesari esker, formazio prozesuan eta lanean ari direnek diru-laguntza ere jasotzen dute.

HERRIAK UTZITAKO LURRAK LANTZEN

Zenbait herritarrek, udalak berak eta Elizak utzitako lurra lantzen dituzte nekazariak. “Herrian zehar banatuta dauden lursailak dira lantzen ditugunak, eta horietako bakoitzean hainbat ortulari ari dira lanean”, azaldu du Ojinagak. Guztira, bi hektarea eta erdi inguru lantzen dituzte, eta bertatik ateratzen dituzten produktuak otzaretan saltzen dituzte astero, inguru hurbilean. “Bermeon eta Mundakan saltzen ditugu batez ere, eta inguruko dendetan ere saiatzen ari gara”.

Barazki freskoez gain, kontserbak eta marmeladak ere egiten dituzte ekoi-zelek haien barazkiekin, eta horiek ere otzaretan sartzen dituzte. “Ikasteaz gain, herrian harremanak egiteko ere interesgarria da proiektua. Azken batean, paperen esperoan daude gazte asko, eta itxaronaldi hori modu aktiboan pasatzeko aukera dute proiektuan, nekazari izateko ikasketak inguru bitartean”, bukatu du. ●



EUSKAL HERRIKO AGENDA

www.bizibaratzea.eus



Bizi baratzea

Jakoba Errekondok hitzaldia eta landareen kontsultategia egingo du.

🕒 **Otsailak 12** 11:30ean.

📍 **Markina-Xemein** Abesu kalea 12.



Sendabelarrek dakitena

Garbiñe Larreak liburua aurkezteaz gain sendabelarrei buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Otsailak 22** Ordua zehazteke.

📍 **Lurreta** liburutegian.

Zure herrian liburu hauen hitzaldia antolatu nahi?

Garbiñe Larreak sendabelarrez edo Jakoba Errekondok baratzeaz gakoak emango dituzten hitzaldiren bat antolatu nahi baduzu, idatzi bizibaratzea@bizibaratzea.eus helbidera eta berehala jarriko gara zurekin harremanetan.

David Wojnarowicz

Rimbaud-ren mozorropean hazitako artista disidentea

David Wojnarowicz (New Jersey, 1954 - New York, 1992) artista estatubatuarrek hizkuntza, baliabide eta egiteko moduen arteko mugak hautsi zituen bere obran, zeina 1980ko hamarkadan garatu zen. Diziplina anitzeko sortzaile, artista bisual, poeta, idazle, musikari, argazkilaria eta zinegilea, 37 urte zituela zendu zen, belaunaldi oso bat lurperatu zuen HIESaren ondorioz.

 JULEN AZPITARTE

Askotariko arte-jardunbidea aktibista konprometitua- ren jarrerarekin lotu zuen Wojnarowiczek, bata eta bestea bereizezin bilakatu arte. Hala, bere garaiko gatazka sozialak eta politikoak salatu zituen artelaren bidez: HIESaren inguruko borroka eta AEBetako Gobernuak Erdialdeko Amerikan gauzatutako eskuhartze militarra. Biak ala biak etengabe aztertu eta azaldu zituen. New Yorkeko East Village auzoan loratutako giro sozial eta kultural emankorreko protagonista nabarmenetakoa izan zen, besteak beste, Peter Hujar, Mike Bidlo eta Julie Hair artistekin batera, eta No Wave mugimenduaren itzalean sortutako 3 Teens Kill 4 taldean ere jo zuen.

Wojnarowiczek idazketaren bide- tik abiatu zuen bere eginbidea: 17 urte zituela udalekuetara bidali zuten, eta bertan hasi zen lehendabizikoz egunkari bat idazten, gehienbat esperientzia hura biziki gorrotatzen zuela adierazteko. “Bazterketa-arriskuan dagoen gazte” gisa eraman zuten. Sasoi hartan harrerare- etxeetan bizi zen, haurtzaro latza igaro baitzuen, aitaren indarkeria eta zurrut zaletasuna tarteko. Gizonezko bezero bila ibiltzen zen hiriko karkaba lizun eta hezeetan barrena, orduan armairutik

atera gabe zegoen arren. 19 urterekin graduatu zen, eta era berean, Rimbaud, Kerouac, Genet eta Burroughs idazleen obra ezagutu zuen, zeintzuk sarritan agertuko ziren bere margolan, argazki eta collageetan; esaterako, *Arthur Rimbaud in New York* argazki serie ezagun- ean, non Daviden lagunak poeta sin- bolista frantziarraren maskara batekin azaltzen diren masturbatzen, drogak hartzen edo txiza egiten.

Literaturarekiko eta idazketarekiko grina bere obra osoan nabarmentzen da, maite zituen idazleen irudien bidez zein testuen txertaketaren bitartez. Poemak idatzi eta argitaratu zituen, eta ez zion sekula egunkariak idazteari utzi. Bada, Maine estatuko kostaldeko kan- pamentua bisitatu zuenetik eta hilzorian egon zen arte, kezka eta pentsamendu ugari paratu zuen paperean. Koaderno horiek, hain justu, Argentinako Caja Negra argialetxeak plazaratu berri ditu *En la sombra del sueño americano. Diarios 1971-1991* (Amerikar ametsaren itza- lean. Egunkariak 1971-1991) izenburu- pean. “(Egunkaria) idaztean, norberak sentitzen duena definitzen du”, dio artis- tak amari idatzitako gutun batean. Libu- rua aitzakia aproposa da sortzailearen nortasun, obra eta bizitza inkonformista eta marjinalen murgiltzeko.

1971

Outward Bound School erakundeak ondutako udalekuan idatzi zuen David gazteak mapa eta planoekin osatutako estreinako egunerokoa. Igelak, sugeak eta bestelako animalia txikiak maite zituen, bere obran behin baino gehia- gotan azalduko den fauna; tartean, 1986ko *Earth, Wind, Fire and Water* (Lurra, Haizea, Sua eta Ura) margola- nean. Baina naturak dakartzan baldin- tzak eta ahalegin fisikoa erdeinatzen zituen. Laster, hiriaren hutsunea igarri zuen. “Poztuko nintzateke plastikozko lore-saltzaileak, gaileta gaziak eta artisau-lanak dauden kale horietan ibi- li ahal izango banintz. Leku horietan batzuetan, ilunagoa izaten da egunez gaez baino. Borondatez joan eta etorri ahal izatea. Uhartre batek mugatu gabe”.

1976

Institutuko John Hall lagunarekin bate- ra Kaliforniara bidaiatu zuen auto-stop eginez eta merkantzia-trenetan sartuz. Abentura, baina, gogorregia iruditu zi- tzaion. Bidean bazterreko hainbat per- tsonaia aurkitu zuen, eta haiek kontatu- tako istorioak, “monologoak”, kaieretan bildu zituen; kamioilari, sexu-langile, langile, arlote eta drogazaleen elkarriz- keta horiek 1982an argitaratu zituen,



David Wojnarowicz-en autoerreturua.

Sounds in the distance (Soinuak distantzian) izenburupean.

New Yorkera bueltatzean, armarutik atera zen. Urte berean Daviden aita Ed-ek bere buruaz beste egin zuen. Hurrengo hamabi hilabeteetan hainbat idazle eta artista ezagutu zuen, drogak hartzen hasi zen, eta Downtown Manhattan auzoko gay giroko klub eta ostatueta murgildu zen.

1978

Pariserara joan zen arreba Pat bisitatze-
ra. Jean Pierre Delage ezagutu zuen, bai eta harekin maitemindu ere. Askotatu zuen Frantziako egonaldian. Ondorioz, literatur estilo propioa lantzen hasi zen.

1979

Ekainean New Yorkera itzuli zen. Gay-en arteko sexu topaketa efimeroak tarteko, Hudson ibaiko moiletako ohiko bisitaria bihurtu zen. Hartara, garai hartako eguneroko idatzietan kai giroko sexu-bizipenak nagusitzen dira.

Sasoi berean, behin-behineko hainbat lan izan zituen, eta horietako batean argazkiak errebelatzen eta fotokopiatuak erabiltzen ikasi zuen. Horrela lortu zuen Rimbaud-en *Illuminations* (Argiak) liburuaren azala fotokopiatzea, *Arthur Rimbaud in New York* argazki-seriean maskara gisa erabiltzeko. Hala, egunkarietako baten azalean, bere obraren sinbolo bilakatu den marrazkia itsatsi zuen: sutan dagoen etxea, bes-

teak beste, Banksy hiri-artistak gerora ezagutaraziko zuen txantiloien teknika-rekin egina.

1984

Gutxi idatzi zuen 1980tik 1987ra bitartean, bere jardun artistikoak aitortza handia jaso baitzuen. Ondorioz, New Yorken eta Europan hainbat erakusketa abiatu zuen. 1987an, baina, bere bizitza irauliko zuen bizipena gertatu zen: sei urte lehenago ezagutu zuen Peter Hujar argazkilari eta bikotekidea zendu zen HIESak jota. Heriotzaren egunean, ospitaleko logelatan zeuden lagunei gela uzteko eskatu zien Davidek, bere maitalearen une erabakigarri hori Super 8 kamerarekin jasotzeko. Horrekin batera, Hujar-en buru, esku eta oinen 23 argazki egin zituen. "Agian ez dut haren heriotza onartzen, eta kamera nire eskuetan jarriz eta bere ohean ekorteta bat eginez onartzen dut", idatzi zuen 1987ko egunkari batean. Oso argazki gutxi positibatu zuen eta negatiboak gutun-azal batean gorde zituen. Hauxe idatzi zuen kartazalean: "Peter-en 23 argazki, 23 gene kromosoma batean, 1423 logela". Giza zelula bakoitzaren kromosomarekin kopurua askotan agertu da Wojnarowicz obran; hala nola, igeltsuzko 23 buruk osatzen duten *Metamorphosis* (Metamorfosia) lanean, 1984an egina.

1988

Hujar-en *loft*-era joan zen bizitzera. Uda berrian, HIESaren proba egin eta positiboa eman zuen. Azkenik, 1992ko uztailaren 22an hil zen gaixotasunaren ondorioz. "Batzuetan jendea gorroto dut. Nazkatuta nago izan nintzenaren fotokopia lauso baten gisa sentitzeaz. Aurreko urteko ni desagertu egin zen, erabat galduta dago iraganean, oihalezko zatar bat legez flotatzen. Hutsik nago, nire ezaugarrien kopia naiz", idatzi zuen 1991ko abuztuaren 1ean.

2019

Azken urteotan David Wojnarowicz obra etengabe berraztertzen ari dira, 2018an inauguratu zuen *History Keeps Me Awake At Night* (Historiak loa kentzen dit) atzera-begirako erakusketa tarteko, zeina Madrilgo Reina Sofia Arte Museoa izan zen 2019an. Erakusketa horren harira argitaratutako katalogoa (kontsultatu hemen: <https://labur.eus/wojnarowicz>) ezinbestekoa izan da testu hau ontzeko. Artea, aktibismoa eta sexu-disidentziak berrasmatu zituen sortzaile baten obran eta ibilbidean sakontzeko argitalpena ikusgarria ere bada. ●



LIBURUA

Irudipena eta kontzientzia



DENA AMETSA DEN IRUDIPENA

LEIRE VARGAS

ELKAR, 2021

PERU IPARRAGIRRE

Leire Vargas (Durango, 2002) idazlearen hitzen oihartzunaren heldu zitzaien lehendik, batez ere sare sozialetatik eta Raymond Carverren *Bizikletak*, *giharrak*, *zigarretak* eta Sally Rooneyren *Soldata jauna* ipuinen itzul-tzaile gisa. 2021eko Irun Hiriko Kutxa Literatur Sari entzutetsua irabazi zuen *Dena ametsa den irudipena* poema-liburuarekin, eta abenduan plazaratu zuen Elkar argitaletxeak.

Zuloak, Ateak eta Zubiak, hiru ataletan banatuta daude liburuko poemak, eta soila eta zuria dirudi guztiak, baina poemetan bezala, bikoiztasuna eta sakontasuna nabari zaio azaleko soiltasunari. Udane Ansak egindako azaleko ilustrazioko marrubia esku batek heltzen duen bihotza da, eta izenburuak ere eman dezake adi-

tzera gauzak ez direla diruditen bezain soil, zentzu batean zein bestean, onarpena ote den ala sinesgogortasuna, dena ametsa denaren irudipenak dakarrena.

Artifizio gutxiko poemak dira, baina ez horregatik sinpleak; hitz zehatzaren eta batzuetan ezustean harrapatzen duen ideiarekin logikari jarraitzen dio liburuak. Pena da, batzuetan, kalko okerren bat edo besterekin topo egitea.

Etereoa da liburuaren atmosfera, ez dago ia izen propiorik, aipuen egileenak baizik ez dira salbatzen, baina agertzen diren kezak zehatzak dira: "Itxaropena dugu iparrorraz, / eta zer litzateke maza / harrobi barik? / Ukan behar ditugu nonbait, desiraz gain, / itxaropena, esperantza, sinesmena... / Nola bestela / segi aurrera? // Baina, bilatzen eta arakatzen

hasita, / zera aurkitu dut, agian, / horrek behar lukeen tokian... / Inertzia".

Ametsaren lausotasunaren eta segurtasunaren eta kontzientziaren zehaztasunaren eta gogortasunaren artean mugitzen dira poemak. Egiten denaren eta desiraten denaren arteko aldea eta horrek sortzen duen tentsioa, harremanak eta galderak dira nagusi liburuan, galderak norbere buruari eta hurkoari.

Badaude behin eta berriz irakurri eta harrirtuta utzi nauten poemak, haien esanahiaren peskizan oraindik, nire baitan haietzako esanahi baten bila; badaude gehiagorako gosez uzten duten poemak, betetzen dutenak, baina, batez ere, idaztearen ariketak dituen aukeretan arakatzeko gogoia eta pasioa ageri da lerroetan eta haien artean. ●



MUSIKA

Za eta Pla egitera



DUPLA

IKER BARANDIARAN

Askok aipatzen du Chill Mafia taldea; antza, Euskal Herriko musika eszenara dagoeneko heldu den aldaketa irudikatzen du, nagusiagoak azkenean alboratu dituen gazteen lur hartzea eta patroï guztien apurtzea. Oraindik ez dut Iruñeko taldea entzun, baina pandemia irauten ari den tarte luze honetan ezagurri horiek guztiak ezin hobeto ordezkatzeko dituen eta liluratu nauen taldea Dupla da.

Maskaradun lehen udan deskubritu nuen Aguraingo bikotea, leku hotz bezain erraldoian (nahiz eta urbanoa zen, eta hori bazuen haien alde!). Ia guztia zuten kontra, baina itzelezko jarrera eta freskotasuna erakutsi zuten. Gerora ikusi izan ditut leku txikiago baina oso hotz batean, jende oso gutxiarekin, eta han ere jan egin

zuten agertokia.

Bi tipo gazte soilik, bateriarekin, gitarrarekin eta aurretik grabatutakoekin: euskara eta gaztelania, sentsualitatea eta kaleko baldarkeria, reggaetonaren alboan rockari lekua eginez, nahieran eta gustura autotuneatzen, dantzan, saltoka, perreatzen eta sudur puntan jartzen zaiena egiten dutela lotsagabeki erakusten. Gainera, aurreko belaunaldietakooi begiak zabaldu eta datozenei nondik gatozen erakutsiz zubi-lan ederra egiten ari dira.

Lehen lan laburra QRdun txupatxusetan plazaratu zuten eta lan luze hau CD estandarrean. Emaizta oso mimatua da: *Kontraesanak* pop autotuneatu gisa sortzen da eta funky-disco-rockero dantza daiteke. *Dantza gaua* Monsieur Le



NAHIERAN

DUPLA

BIDEAN, 2021

Crepe-k aberastutako reggaeton-raggamuffina da. *Erromeria* Tapia eta Leturia zein trikitixa berpizten dituen ariketa. *01200* haien jaioterriko rockero zaharrei (Kaotiko, Txiki, Evaristo) hartutako posturatik egina da eta Anthrax eta Public Enemyk erdietsi zuten huraren parekoa da emaitza. *Un mal día* autotuneatutako rock makarra. *Konforme*, Sara Zozaya handiaren laguntzarekin, eta *Zugandik ihesi*, Pello Skakeitan lagun, baladak. *Tururú* Los Rodriguez 4.0 gisara entzuten da. *Somos así* eta *Mundua galdu* Dupla-ren marka duten pieza jostari, erritmiko eta rapeatu-xuxurlatuak dira. Azkenik, *Txiki* -Xsakara-ren laguntzaz-, Madonak oraindik ezagutu ez duen drum&bass tribala eta *Animali* Panxo Zoo-k borobil-dutako pieza latina ditugu. ●



Leku bat, hemen

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Leku bat ezin da koordinatu batzuetara mugatu. Leku bat ezin da soilik mapa bateko puntu bat izan, ezta horma-irudi bat ere. Mapa batek ezin izango du inoiz lurraldea zehatz-mehatz irudikatu, leku fisiko bat baino askoz gehiago baita. Horma-irudi batek errealitatea mugatuko du kaiola laukizuzen batean sartuz.

Lekua Bilboko Eleiz museoaren erakusketa-aretoa da. Hemen eta orain. Lekua Madalen Pinuaga Jaio artistak aukeratu duena da eta hor gaude ikusleak, hemen eta ez beste inon. Hormetan zazpi koadro daude haien artean elkarrizketan, baita gurekin ere. Zazpi paisaia dira, zazpi ate ireki ikusleak igaro eta habita ditzan.

Artelanak egilearen etapa baten testigantza dira. Fase berri bateko atarian dago-eta, hurrengo pausua eman baino lehen, begirada atzera botatzea erabaki du. Aurretik prestatu gabeko etapa bat

izan da honakoa. Koadro horiek margozten hasi zenean zer edo zeren atzetik zebilela zekien arren, zera hori zer izango zen ez zuen oso argi. Baina intuizioari jarraituz bidea topatu du, susmoak baieztatu ditu. Pintzelkada organikoekin eta urdin, gris eta berdeen jolasarekin kostaldeko paisaiak irudikatu ditu, gure bazterren usteko geometria hertsia gaudituz. Egileak anekdotatik haratago joan nahi izan du, ikuslearen pertzepzioarekin ez ezik, berearekin ere jolastuz.

Gure burmuinak dituen filtroak diseinatu ziren unibertsoaren handitasunak ito ez gaitzan. Filtro horiek mugak dira, hori da haien funtzioa. Era berean, irakatsitako hizkuntzaren esklaboak gara eta, horren ondorioz, ez gara harago joateko gai. Mundua imajinatu nahi dugunean begiak itxi eta barrura begiratzeko ohitura dugu, begien parean dugunaren sakontasuna topatzeko ezintasunak bultzatuta, jainkotasuna gudan balego bezala.

LEKU BAT, HEMEN ERAKUSKETA

NOIZ: urtarrilak 7

NON: Eleiz Museoa (Bilbo)

Paisaia-arteari, gure inguruari bezala, espiritualtasuna ukatu diogu.

Artistaren funtzioa paisaiaren objektibotasunetik haratago joatea da, pertzepzioaren ateak ireki eta bidaia kosmiko batean abiatzea. Zerbaiten atzetik joan, zeren bila ari den ez badaki ere. Madalenek zazpi koadro eskaintzen dizkigu, zazpi ate ireki, ez guk begiesteko, baizik eta barrura jausi eta sortu duen lekua bizitzeko, erditze lekutik kanpora bidaiatzeko. Pintzelkadak eta aukeratutako koloreak hieroglifikoak dira, parez pare dugun munduaren sarraila irekiko duten giltza.

Soilik gure pertzepzioaren ateak ireki eta bideak garbituko ditugunean ez dugu gela honetan geratu beharko. Itsasoko ura gure zainetatik ibiliko da eta goroldioa izango da gure azala. Bitartean, hemen egongo gara, Madalenek guretzat sortutako lekuetan. ●



Hitz gezidunak

MINTZETAN GERTAZTEN DEN HAN-DITSU ATSEGINEZ	ARRAIO ZAREN HORI	DA, NIRI			OROIPEN ARE GEHIAGO	AHUL PERTSONAIAREN IZENA	SAGARDOTE-GIAREN ATAL GORALDIA
HEGAZTIEN KANPO-ESTALKIA LETRA GREKOA	MUSIKA ESTILOA ALEGIAZKO KONTAKIZUN	PRESI-UNITATE URAZPIKO DETEKTA-GAILU			ANTZINAKO MUSIKA TRESNA LEKUAK	AZAL GOGOR IBAI GAINEKO PASABIDE	LANDARE LEKADUN ATZEKO ALDERA
OLDOZTU ELEKTRIZITATE TENTSIOA NEURTZEKO UNITATEA	HALABER KAFAA	PERUN MINTZETAN DEN HIZKUNTZA BOXEKO BORROKALDI	ZALDIAREN ILEA JASANGAITZ, GOGOR	IRUDIGILE AMERIKARRA EMAKU-MEZKO IZENA	ATZEKO ERARA ABIL, IAIO	ERAMAILE OINARRI, EUSKARRI	OXIGENOA IZAN EZIK, SALBU
ATZEKO	ERARA ABIL, IAIO	PERUN MINTZETAN DEN HIZKUNTZA BOXEKO BORROKALDI	ZALDIAREN ILEA JASANGAITZ, GOGOR	IRUDIGILE AMERIKARRA EMAKU-MEZKO IZENA	ERAMAILE OINARRI, EUSKARRI	ESKUMUTUR AUZITEGI NAZIONALA	LIKIDO-MASA TXIKIAK ENERGIA
EGIPTOKO JAINKOA OIHANAREN ERREGE	ERAMAILE OINARRI, EUSKARRI	ESKUMUTUR AUZITEGI NAZIONALA	LIKIDO-MASA TXIKIAK ENERGIA	EZEZTATZEKO PARTIKULA	ATZEKO	ERARA ABIL, IAIO	PERUN MINTZETAN DEN HIZKUNTZA BOXEKO BORROKALDI
BERE ..., BERE ARTEAN PERTSONAIAREN ABIZENA	ERAMAILE OINARRI, EUSKARRI	ESKUMUTUR AUZITEGI NAZIONALA	LIKIDO-MASA TXIKIAK ENERGIA	EZEZTATZEKO PARTIKULA	ATZEKO	ERARA ABIL, IAIO	PERUN MINTZETAN DEN HIZKUNTZA BOXEKO BORROKALDI

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			3	9		4		
		9			4	5		
2	6				5			
9	3							4
4		8				6		3
5							2	7
				5			9	1
			5	4			8	
		3		7	6			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Abesti
2. Zikin, lizun
3. Alferra
4. Txiki
5. Usadioa

EBAZPENAK

1	8	3	9	7	6	2	7	4	5
7	9	5	4	2	1	2	1	3	6
6	4	2	5	3	8	7	9	1	
5	1	6	8	4	3	6	2	7	
4	2	8	7	1	6	9	5	3	
9	3	7	6	5	2	1	8	4	
2	6	4	1	8	5	3	7	9	
3	7	9	2	6	4	5	1	8	
8	5	1	3	9	7	4	6	2	

F	E	R	R	N	N	V	N	D	Z	E	Z	E	T	A	V
B	V	I	L	T	A	V	N	D	Z	E	Z	E	T	A	V
L	E	H	O	I	O	I	O	I	K	A	V	A	R	A	I
R	V	A	R	E	R	O	V	A	L	E	K	A	Z	A	Z
V	T	Z	E	K	A	R	I	Z	U	R	D	A	V		
E	R	V	A	N	K	I	T	X	U	V	A				
L	T	O	L	T	O	R	O	B	A	T	K	E			
P	E	N	S	J	A	V	T	U	I	L	A	R			
I	I	O	I	B	Z	I	T	V	A	R	V				
L	U	M	V												
P	Z	Z	O												
P	D														

Nerea Arriola Urberuaga

SUDUR GORRIZ



OHOLTZAN HOBEEKIEN

“Supertxope [websaila] ia ezer pentsatu gabe sortu genuen. Gidoia bazegoen, nik ez nuen deus asmatu. Oso-oso dibertigarria izan zen, oso baliabide gutxirekin egin genuen lana. Freskoa izan zen ariketa. Kamera aurrean arraro sentitu nintzen. Zuzenean publikoari begira egin genuen lana, hori baita kamera aurrean lan egitea. Ez nengoen ohituta, ni oholtza gainekoa naiz. Ongi pasatzen dudan arren eta formatua interesgarria den arren, taldean lan egitea atsegin dut. Bakarriketarako egiterakoan ere ez baikaude bakarrik, beti dago taldea atzean”.

“Umoreak librea izan beharko luke, baina gizartea ez da librea”

Argi eta garbi dio Nerea Arriola Urberuagak (Donostia, 1988): “Ez dut ulertzen nire bizitza antzerkirik gabe, askatasuna eskaintzen didan ariketa bakarra da, kontzentrazio absolutua lortzen dudana espazio bakarra da”. Erizaintza eta Arte Eszenikoak ikasia, lehenak eskaintzen dion “soldatatzarekin” bigarrenari hel diezaiokeela aitortzen du. Zurriola Antzerki Eskolan murgildu zen haurtzaroan eta bertako olatuen bueltan segitzen du, oholtza gaineko ariketak egiten, baita haurrei clown ikastaroak ematen ere.

AITZIBER ZAPIRAIN **IRANTZU PASTOR**

Oholtza gainean bakarriketarako eskaintzen dituzu, baina horretaz gain Donostiako Zurriola Ikastolako Antzerki Eskolan clown ikastaroak ematen ere aritzen zara.

Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoei clown klaseak emateko deitu zidaten, eta ni neu bertan hazi naizenez eta oraindik ere bertan segitzen dudanez, ezin nuen ezetz esan. Zurriola Antzerki Eskola formakuntza gune garrantzitsua izan da niretzat. Nire lehen sudur gorria garai hartakoa da. Eskolan bat ematen baziguten ere, San Tomas egun batean erosi zidan amama Terek Groseko azokan. Ongi gogoan dut, postu txiki batean gizon bat zegoela, sudurrez beteriko maleta batekin. “Zein da zure sudurra?”, galdetu zidan eta nik berehala bat hautatu nuen, irriz. Gomazkoa da eta oso deseginda dago jada, baina gordeta daukat. Oso berezia da niretzat. Ikasitako hori irakasten saiatzen naiz orain. Beste aldean nago eta me-

moria ariketa oso indartsua izan da niretzako. Liluratuta nago!

Nola irakasten da clown izaten?

Norberaren alde inozentearekin konektatzea da clown izatea. Oso emozionala da ariketa. Teknika ugari dago, jolasak, metodoak... Azken batean bakoitzak gure clowna dugu eta hori da gakoa, norberak berea topatzea, lantzea.

Inozentziarekin konektatzea ez da ariketa samurra, bereziki helduaroan. Baina bederatzi urterekin oraindik bagara aski inozenteak. Adin egokia da mundu honetan murgiltzeko. Irudimena hor dago, eta egia esan harrituta nago ikasleekin. Hasierean elkarri begiratzea eta harremantzea kosta egiten zitzaie, baina poliki-poliki ari dira. Jolasaren bidez egiten dugu dena. Garapen pertsonal handiko ariketa da. Ederra da oso lotsatiak direnak bat-batean ahotsa nola altxatzen hasten diren ikustea, espazioaren okupazioa ere barne-

"Kulturak badu eraldatzeko gaitasuna. Egoera bat irudikatu edo probokatu dezakezu haren bidez. Kulturak erreproduzitzen du edo eraldatzen du eta, kurioski, eraldatzen duenean ez da eroso".



ratzen hasten dira, pertsonalitatea garatzen... "Egin guztia handi", esaten zigun Joserra Fachado irakasleak, "azken ilarakoak ere entzun eta ikusi behar zaitu". Orain neu naiz hori esaten duena. Guk jolasaren bidez ikasi genuen eta neuk ere bide bera erabiltzen dut.

Umeak dira, baina jendartean nagusi diren estereotipoak jada ageri dira adin horretan.

Bai, clownarekin sentimendu ezberdinak transmititzen ikasten dugu. Poza, tristura, haserrea... Hori ere oso pertsonala da, denok ez baikara berdin haserretzen, adibidez, baina neska eta mutilen adierazteko moldeak jada markatuta daude adin horretarako. Mutilek, adibidez, haserrea plazaratzeko eskatzen dudanean, berehala jotzen dute gorputz adierazpide bortitzera. Neskek, ordea, ez. Harrigarria da, baita ere, egoerak zein ezberdin kudeatzen dituzten ikustea. Aukera izan dut berriki helduagoi ere clown ikastaro bat emateko eta oso adin tarte txikian izugarria da itxura fisikoaren gaineko presioa nola handitzen den: "Ni ez naiz guapa,

ez naiz polita", diote. Horri aurre egiten ahalegintzen gara.

Clown figurak lagundu dezake hori iraultzen?

Nire ustez adin horretan ez dira horretaz oso kontziente. Antzerkiak orokorrean eta clownak tresnak ematen dizkigu komunikazio hori garatzeko, beste modu batera hitz egiteko. Beste komunikazio gaitasun batzuk dira, bizitzan oso garrantzitsuak direnak. Ni, adibidez, helduaroan ohartu naiz mundu zabal honek eskaini dizkidan baliabideez.

Kulturak badu eraldatzeko gaitasuna. Egoera bat irudikatu edo probokatu dezakezu haren bidez. Kulturak erreproduzitzen du edo eraldatzen du eta, kurioski, eraldatzen duenean ez da eroso. Umorearekin gauza bera gertatzen da. Zenbait umore mota ez dira ongi hartuak, desafio suposatzen dutelako. Dena dela, ezinezkoa da denen gustuko umorea egitea. Beti egongo da ados ez dagoen norbait, baina hori ere ona eta beharrezkoa da. Eztabaida ongi eramaten bada eta horrek garapena badakar ongi dago. Kontua da

nork egiten duen umorea, zein diskurtso den hegemonikoa, zeri ematen diozun plaza... Eta hori ere aldatzen ari da.

Ni oso kontziente naiz nire zuritazunaz. Badakit gai batzuk ezin ditudala tratatu. Eta egiten badut oso modu kontziente eta zehatzean egingo dut. Umoreak librea izan beharko lukeela? Bai, baina, aldi berean, gizartea ez da librea. Gainera, iruditzen zait muga k iraganean baino itxiagoak ditugula egun. Sare sozialen bidez denok dugu iritzia emateko aukera. Suntsiketa eta iritzi emate soila ezberdindu egin behar dira ordea.

Opari bat izan da clown ikastaroa eskaini ahal izatea?

Bai, oso pozik nago. Atsegin handiz egiten dudan ariketa da, eta eman bezainbeste jasotzen dut, gainera. Hau-rekin lan egitea magikoa izan daiteke. Clown ikastaroari esker elkar entzuten, oholtza gainean egoten, txandak errespetatzen... ikasten dut. Motxila bete eskaintzen diet eta neu ere material askorekin itzultzen naiz etxera egunero. Oso pozik nago. ●

Eskandaluak eta balizko maniobrak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Goiko esferetan mugitzen diren gizaseme zoriontsu guztiak antzekoak dira, eta egin behar ez luketen zerbait egi-ten atzematen dituzten guztiak berriz, bakoitza bere modukoa. Boris Johnson eta Iñaki Urdangarin, BoJo eta Besoluze –horrela deitzen omen dio Juan Karlos “Hahaha! Elefantea da!” Borboikoak–: biak harrapatu dituzte eskuak gaileten kaxan sartuta azkenaldian, baina bekatu diferenteak leporatu dizkie eskandalutegiak. Johnsoni, gutxi gorabehera, Downing Streeteko 10. zenbakia *after* bat bihurtzea distantzia sozialeko neurriak zangartetik pasaz. Urdangarini berriz, bere emazteari –alegia, Juan Karlos Abu Dhabi-dibi-duren alabari– jartzea adar batzuk, zeintzuen tamainak gogora ekartzen duen Pirinioetako basahuntza (*capra pyrenaica*; aspalditik neukan hau egiteko gogoia, Jakoba).

Errazena izango litzateke sekzio honetan ere aizkora ateratzea eta eroritako bi haritz horiek (*quercus robur* eta *quercus petraea*) tximiniarako egur puskatan zatitzea, baina gauzak konplikatuzera etortzen garenez, saiaturiko naiz esplikatzeko zergatik zuhaitzak batzuetan ez digun uzten basoa ikusten.

Hortaz, Johnson. Bai, egia da, COVIDaren aurka kristo guztia profilaktikoki bereizteko agindu ondoren, ti-poa festarik festa ibili zen, zurrut eta snif. Lotsa gutxi behar da. Baina lehen ministro britaniarrari lotsaren antza daukan ezer eskatzea Teletubby samarra da. Orduan, horretan geratu ordez, galdera da: bakarrik egin al zituen parrandak? 100 lagun inguruko *party*-ak aipatu ditu orain prentsak. Eta antza, bazkari herrikoi bat egiteko moduko talde horietan baziren kametariak, ez bat eta ez bi, Dominic Cummings egia esaten ari bada behintzat.



Hurrengo galdera, beraz, ez da ea Johnsonek vodka ala martinia edaten duen, denek ezagutzen zituzten festa horiek justu orain zergatik atera dituzten baizik. Eta segidakoak: nork hartu nahi duen adats errebeldeko lehen ministroaren lekua, zer asmorikin, eta abar.

Urdangarinekin, antzeko generotik kuartillo eta erdi. Konspirazio-teoriak hain modan daudenez utziko didazue, burua aluminiozko paperetan bilduta, nirea kontatzen: Zumarragako Handia bere rolo berriarekin erretratatu dute hondartza batean paseatzen. Baina ez edozein hondartzatan: Bidartekoan. Datu hori inportantea da, kaleko *españolito* arruntarengan esna ditzakeen esanahiengatik. Zeren segur aski Mostoleseko norbaitek bere bizitzan behin bakarrik entzungo zuen orain aurretik herri horren izena. Segur

aski 1992an. Entzun du Bidarte berriz telebistan, eta burmuineko zimurretan aurkitu ditu “operazio poliziala”, “ETA”, “kupula” eta antzeko beste artefaktu batzuk instalatuta.

Esan, Saussure: gehiegizkoa ote da susmatzea norbaitek Urdangarin adierazlea askatu nahi duela borboitar ustelen eremu semantikotik eta beste esanahi bat –euskotar traidorea- eman? Nóos kasuko marroia jan ondoren guztiz amortizatuta dago, baina infantak eta emerituak saltsa hartaz deus ez zekitenik ez du sinetsi ezta Espainiako tontoenak ere. Paper *couché*-an inprimatutako arbola luze bat jarri behar –1,97 metro, alajaina– atzeko guztia estaltzen, ea monarkia borbonikoa ezkontza txar baten biktima gisa aurkezteak hobeto funtzionatzen duen.

Gainontzeko dena, espektakulua. Dibertigarria noski. ●

ARGIA
Sariak
2022

Urtarrilaren 31tik
otsailaren 4ra

Aurten ere, pandemia dela eta ez da Argia Sarien ohiko bazkaririk egingo, eta iaz bezala banatuko ditugu sariak, sarean iragarrita. Urtarrilaren 31n hasiko gara sarien banaketarekin eta otsailaren 4ra arte saridun baten berri emango dugu egunero.

Kazetaritzan eta komunikazioan egindako lanengatik sarituko ditugunak zeintzuk diren jakiteko: sartu ARGIAren webgunean, egunero goizeko 10:00etan.



ANIMALIEN ONGIZATEA BERMATZEKO, BADITUGU AKTIBISTAK.



EUSKADIKO
ITUN
BERDEA

LEIRE AYALA MAZORRIAGA BEZALAKOAK.



Izan ere, bere jarduerarekin kalitatezko jaki osasuntsuak ematen dizkigu, gure ingurunea eta lurralde oreka babesten laguntzen digu .

Euskadiko Familia Nekazaritza.

Elkarrekin, mundu hobe bat landuko dugu.

EUSKADI



Familia Nekazaritzako
Batzordea
Comité Regional
de Agricultura Familiar

Decenio de las
Naciones Unidas de la
**AGRICULTURA
FAMILIAR**
2019-2028

hazi



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**